

Berrigara



Elixamendiko Andramari Konponketaren zain

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATen:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK:** **ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animalia)** 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko al baitari ofiziala).** 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGOA Sa** (Granjako animaliak). Iribar baserria, ANTZUOLA. 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 76 27 97, mobila: 908 87 68
- **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA:** **IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 76 32
- **DENTISTAK:** **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behea. 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 76 05 77 • **GOROSABEL** **Alberto.** Fraiskozuri 5, behea. 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S.** Arrieta 3, 2-B. 76 38 54 • **IRIAR** **Idoia.** Artekale 1, 1-C. 76 01 65 ■ **DERMATOLOGOA:** **GARCIANDIA Cristina.** Ramon Maria Lili 2. 76 59 39 ■ **ESTOMATOLOGIA:** **IRIZAR Juan Mari.** Laskurain 4, behea. 76 56 57 ■ **FISIOTERAPEUTAK:** **ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global).** Artekalea 1, 1-H. 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA:** **SERRA** **DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 76 59 39 ■ **MASAILARIAK:** **AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 76 15 74 • **AZPEITIA Iru** **ne.** Agorros igerilekuak. 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 76 60 13 • **PAYROS Aitz** **Bidekurutzeta 46, behea. 76 52 62 ■ MEDIKUNTZA ESTETIKOA:** **BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKOR** **OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behea. 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA:** **IGARTUA Julian.** Barrenkalea 35, 1-ekerra. 76 70
- **PEDAGOGOAK:** **IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea).** Simon Arrieta 3, 2-E. 76 26 42 ■ **PODOLOGOAK:** **ALTUBE Edu** **Simon Arrieta 2. 76 07 84 • AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 76 41 32 ■ **PSIKIATRA:** **GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:** **FERNANDEZ J.R.** Ramon Maria Lili 2. 76 59 39 • **PSIKOPEDA GOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 76 30 76



Urtebete baino gehiago

Tomasa Zabaleta / San Xosepe jubilatuen elkarteko burua

Urtebete baino gehiago da dagoeneko, San Xosepe jubilatuen elkarte sortu zela. Une honetan elkarteak 1.448 bazkide ditu, horietatik 402 dira 65 urtez azpikoak. Aipatzekoak dira, beraz, bi gauza: alde batetik, jubilatuen populazioa gero eta gazteagoa izatea; eta, bestetik, oso denbora motzean bazkide multzo handi bat egin izana. Jubilatu gazteagoen multzo hori bazkide egin izanak erakusten du, gainera, apurka-apurka ari dela hobetzen Jubilatu-etxeen irudia, garai batean batzuentzat oso erakargarri ez zena.

Hil honen 25ean arratsaldeko 17:30etan bazkideen Batzar Orokorra egingo dugu. Zuzendaritza Batzordeak 1997ko memoria aurkeztuko du. Egia esanda, joan zen urteko jardunaz oso balorazio positiboa egin du zuzendaritzak. Aurreikusitako ekintzak gauzatu dira eta harrera ona izan dute, bai bazkideen partetik eta baita gainontzeko jendearen partetik ere. Zentruak eskaintzen dituen gainontzeko zerbi-

tziek ere erabilera handia dute. Bestalde, batzarrean 1998rako ekintzen programa ere aurkeztuko da eta baita urteko aurrekontua ere.

Joan zen urteko Kultur Hamabostaldiko goiburua zioena, "Erretiratu izatetik presente egotera" egi bihurtzeko, jubilatuei talde moduan, herrian presente egoteko zenbait ekimen planteatuko dira. Horretaz gain, elkartearen barruan ere bazkideen partehartzea eta eurekin dugun komunikazioa hobetu nahi dugu. Partehartzea elkar aberasteko bide bat da baina jarduera plan zehatzak eskatzen ditu. Alde horretatik, iazko ha-


mabostaldia pozgarria izan zen eta aurreko kultura eta partehartzea bultzatuko duen antzeko ekimen bat jarriko dugu martxan. Zuzendaritzak ahalik eta programarik zabalena eta bariatuen eskaintzea dauka irizpidetzat jendearen interes desberdinei erantzun ahal izateko. Programak gizarte-osasuneko faktoreak ere baditu: kultura eta entretenimendua batzen ditu eta pertsonen arteko harremanak bultzatu nahi ditu pertsona nagusien bakardade-arriskua gainditzeko. Pertsona nagusien ekimena eta sormena ere bultzatu nahi dugu.

Jubilatuen Etxeez orain arte izan den ikuskera, egonean egoteko toki izatearena, gaintu nahi genuke. Jakin badakigu, aldaketa guztiak direla neketuak eta, beharbada, bilakaerak motela izan behar duela, baina garrantzitsua helburua garbi izatea da.

Batzarrean izaten den partehartzea, bazkideen ekimenaren eta partehartzearen erakusgarri eta Elkarteko kide izatearen kontzientzia indartzeko aukera bat izango da. Zain izango gaituzue. B

"Jakin badakigu aldaketa guztiak direla neketuak eta, beharbada, bilakaerak motela izan behar duela, baina garrantzitsuena helburua garbi izatea da"

■ barruan



J. Jose Azkarate

Ezker Sindikaleko arduraduna

"Sindikatu barruko korriente modura eratu ginenenik diferentziak izan dira"

8. orrialdean.



Jon Lazkano

Mendizalea

"Daulaghiriko bidea ez da zaila, baina haize gogorra egiten du"

22. orrialdean.



Gurutz Arrieta

Txirindulari Elkartekoa

"Merckx ala Indurain? Diferenteak izan dira. Merckxek klasikak ere irabazten zituen"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1993. Martxoaren 21ean Etxanizek eta Zezeagak Eskulari eta Empresas Unidasek antolatutako binakako txapelketa irabazi zuten Bergarako Udal Pilotalekuan, finala Urionaguena eta Galartzari 22 eta 15 irabazi ondoren. Galartza zen unean banakako txapeladuna.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1770. Martxoaren 17an Carlos III.ak Bizkaiko Foruak zin egin zituen.

1921. Martxoaren 15ean ELA sindikatuan 1.000. bazkidea egin zen.

1989. Martxoaren 16an Joseba Leizaola Lehendakari izandakoa hil zen.

MUNDUAN GERTATUA

1964. Martxoaren 14an Jack Rubi, ustez Kennedy hil zuen Lee H. Hoswald erahiltzeagatik aulki elektrikoan exekutatu izan zen Dallasen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 13
16-29-32-45-46-49 (osag.15/er.8)
Astelehena 16
5-18-24-26-33-48 (osag.42/er.0)

PRIMITIVA

Zapatua 14
11-12-30-36-39-41 (osag.45/er.3)
Domeka 15 Gordo
4-8-24-27-37-48 (osag.20/er.3)

ONCE


Eguakitza 13: 10.420 (K. seriea: 124)
Astelehena 16: 28.679

BESTE BATZUK

Bedelkarreko harakinak: 8.679
Etxaniz plataforma-Mariskada: 1.370 (jasotzeko epea: domeka 22)





Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Azken egunotan bezala jarraituko du eguraldiak hurrengo egunotan ere. Laino batzuk agertuko badira ere, eguzkia izango da nagusi. Haizeak ekialdetik joko du eta tenperaturak berdin jarraituko du. Eguraldi ona jai egunetarako.

Ilargiaren aldiak

-  Ilbehera: martxoak 21
-  Ilberri: martxoak 28
-  Ilgora: apirilak 3
-  Ilbete: apirilak 11

Eguzkia

Domekan



Sortu: 07:17



Goarde: 19:31

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 12	8	6	10
Eguakitza 13	12	6	-
Zapatua 14	13	1	-
Domeka 15	12	4	-
Astelehena 16	14	7	-

farmaziak

Eguakitza 20

ESTELLA. 22:00ak arte.
Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.
AZKOAGA. 22:00etatik aurrera.
Ferrerias 1, Arrasate. Tf. 79 15 15.

Zapatua 21

MOZOS. 22:00ak arte.
San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.
ESPAÑOL. 22:00etatik aurrera.
Iturrioz 17, Arrasate. Tf. 79 14 88.

Domeka 22

MOZOS. 22:00ak arte.
San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.
CORCUERA. 22:00etatik aurrera.
Elkano 2, Arrasate. Tf. 79 22 26.

Astelehena 23

CAMACHO. 22:00ak arte.
Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.
IRIZAR. 22:00etatik aurrera.
Erguin 11, Arrasate. Tf. 79 12 39.

Martitzena 24

PUY. 22:00ak arte.
Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.
AMEZUA. 22:00etatik aurrera.
Sta. Marina 32, Arrasate. Tf. 79 09 74.

Eguaztena 25

GUALLAR. 22:00ak arte.
San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.
ZABALA. 22:00etatik aurrera.
Zarugalde, Arrasate. Tf. 77 16 30.

Eguena 26

ESTELLA. 22:00ak arte.
Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.
RUIZ. 22:00etatik aurrera.
Magdalena 31, Arrasate. Tf. 79 14 09.

ogia

Domeka 22: Ogunuz.

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

SOS deiak	008
DYA	78 71 57
Gurutze Gorria	76 55 76
Larrialdiak	76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	76 24 40
Anbulantzia	55 49 62
Udaltzaingoa	77 91 06
Ertzaintza	76 53 40
Suhiltzailak	78 28 00
Osasun Etxea	76 24 40
Arrasateko ospitala	79 53 00
Asepeyo	76 16 43
Pakea	76 13 49
Alcer	76 12 62
Angiozarko medikua	78 90 27
Antzuolako medikua	76 62 23
HIES Ekimena	79 26 99
Odol emaleak	76 16 24

Garraioak

Euskotren	45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	76 19 50
RENFE	28 35 99

Udala

Udaletxea	77 91 00
Udal Artxiboa	77 91 32
Euskara Zerbitzua	77 91 66
Igerilekuak	76 20 51
Kirol Zerbitzua	77 91 67
Kultur Etxea	77 91 58
Liburutegia	77 91 62
Mizpirualde Egoitza	76 13 68

Prensa berriemaleak

Berrigara	76 03 97
Egin	76 45 52
El Correo	76 10 90
El Diario Vasco	76 81 57
Extra	79 82 68

Bestelakoak

Bedelkar	76 04 68
Epaitegia	76 14 92
Erregistroa	76 13 15
Jardun	76 36 61
Jubilatuena Etxea	76 21 40
Mendi Nekazaritza	76 25 47
Musika Eskola	76 57 80
Notaritzia	76 10 73
Postetxea	76 26 85
Xipizaro ludoteka	76 23 76

hamaika ikusteko jaio ginen!

Aberats-ohiturak eta kariaea

OMEk (Osasunerako Mundu-Erakundea) dioenez, hagineta txantxarra edo kariaea ohizkoagoa da herrialde aberatsetako biztanleengan. Arrazoia azukre kontsumo altua izan liteke.

hildakoak

Julian Iñiguez de Heredia
Martinez de Ibarreta
 Martxoak 10, 91 urte.
Luzia Amutxastegi Txintxurreta
 Martxoak 12, 101 urte.
Jose Maria Azkarate Retolaza.
 Martxoak 13, 63 urte
Francisco Herreros Camacho
 Martxoak 13, 58 urte
Juanita Irasoegi Elejalde
 Martxoak 13, 56 urte
Maria Angeles Ruiz
Santa Eulalia
 Martxoak 14, 60 urte
Rafaela Etxezarreta Alberdi
 Martxoak 15, 81 urte
Miguel Egia Legorburu
 Martxoak 17, 70 urte

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Anis bedar

Milua. *Hinojo*. Gizonaren altura edo handiagoa har dezakeen belarra. Anis usain handia du. Haizeak botatzeko, txiza eragiteko, jateko gogoa berpizteko eta emakumeei esnea gehitzeko erabili izan da.




Josu OKINA

PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.
Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00.
Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).
Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.
Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.
Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.
Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.
Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.
Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.
Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 15:00, 14:45, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.
Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.
Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.
Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.
Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.
Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaieguna: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.
Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

zorion agurrak



Oier Aldai
 Martxoaren 17an
 10 urte. Zorionak
 gurasoen partez!



Markel Aldai
 Martxoaren 17an
 10 urte. Zorionak
 zuri ere Markel!



Saioa Ugarteburu
 Martxoaren 21ean
 7 urte. Zorionak
 familiakoan partez!



Marina Urriolabeitia
 Martxoaren 25ean
 6 urte. Zorionak
 etxekoan partez!



Danel Santamaria
 Martxoaren 20an
 urtebete. Zorionak
 osaba eta izebaren
 partez!



Pili Ugarteburu
 Martxoaren 22an
 beteko ditu urteak.
 Zorionak familiaren
 partez!



Andoni Iturbe Agirre
 Martxoaren 23an
 8 urte. Zorionak
 familiakoan partez!



Unai Unamuno
 Martxoaren 16an
 2 urte. Zorionak
 gurasoen eta
 Enekoen partez!



Oihana Astigarraga
 Martxoaren 25ean
 6 urte. Zorionak
 familiakoan partez!



Markel Gomez
 Martxoaren 18an
 11 urte. Zorionak
 etxekoan partez!



Leire Asiain
 Martxoaren 15ean
 16 urte. Zorionak
 koadrilakoan partez!



Eneritz Larrañaga
 Martxoaren 17an
 16 urte. Zorionak
 koadrilakoan partez!



Esther Iñarra
 Martxoaren 3an
 16 urte. Zorionak
 koadrilakoan partez!



Mireia Gonzalez
 Martxoaren 11n
 16 urte. Zorionak
 koadrilakoan partez!



Gemma Gonzalez
 Martxoaren 19an
 24 urte. Zorionak
 lagun partez!



Manolo Osuna, MOT
 Martxoaren 20an
 24 urte. Zorionak!
 Izar eta koadrila.



Kimberly Castro
 Martxoaren 19an
 2 urte. Zorionak
 osaba-izeba eta
 amamaren partez!




Juan Carlos Barriobero
 Martxoaren 20an
 35 urte. Zorionak!
 Agirrebeñakoak.



Ainhoa Laruskain
 Martxoaren 17an
 7 urte. Zorionak eta
 mila musu denon
 partez!



Juan de Borja
 Martxoaren 18an
 20 urte. Zorionak
 lagun partez!



Piti Madariaga
 Martxoaren 15ean
 bete zituen urteak.
 Zorionak familia eta
 bi alaben partez!



Ariane Liberal
 Martxoaren 15en
 15 urte. Zorionak
 familiakoan partez!



Amaia San Torcuato
 Martxoaren 28an
 5 urte. Zorionak
 familiakoan partez!



Asier Labaien
 Martxoaren 28an
 31 urte. Zorionak
 familiakoan partez!



Josu Agirre
 Martxoaren 23an
 5 urte. Zorionak!
 Gurasoak eta lker
 eta Markel anaiak.



Markel Lopez Larrañaga
 Martxoaren 18an
 6 urte. Zorionak
 familiakoan partez!



Joxe Balanzategi
 Martxoaren 17an
 bete zituen urteak.
 Zorionak lagun
 partez!



Igor Okina Mujika
 Martxoaren 18an
 2 urte. Zorionak
 etxekoan partez!

ANTZERKIA

► Eibarko Antzerki

Jardunaldiak: "Shakespeare osoa" ostiralean (20:00etan euskaraz eta 22:15etan gazteleraz); "Cuento de invierno" astelehenean 20:30etan; "Los hombres del tiempo" martitzenean 20:30etan, "La forza del desatino" eguaztenean 20:30etan eta "Torito Bravo" hilaren 27an, 20:30etan. Emanaldi guztiak Hezkuntza Esparruan.

MUSIKA

► **MDH eta Boikot** taldeak eguakitzean, hilak 20, Oñatiko Gaztelekuan 22:30etan. Datorren astean, hilak 27, **Desvan del macho** eta **Daisy Cutters** ordu eta toki berean.

► **Mixtura fina** taldea domekan 22:00etan Soraluzeko Gaztelupen.

ERAKUSKETAK

► **Carlos Goitia** margolariaren erakusketa Nahikari tabernan.

IKASTAROAK

► **Islada Bideo Tailerra**-ren ikastaroak: bideoiko sarrera-ikastaroa (martxoaren 24tik maiatzaren 8ra), gidoilaritza (uztailaren 6tik

ERAKUSKETA

Eskualdeko artea


Kultur Etxean

Noiz: martxoaren 23tik apirilaren 5era.

Abdon Juaristi zenaren heriotzaren lehen urteurrenean, Arrasate Margo Taldeak eta Beart herriko artisten elkarteak eskualdeko lehen arte topaketa eskainiko dute, astelehenetik aurrera. Juaristik lagun asko laga zituen Bergaran eta Arrasaten eta bere pintura eta adiskidetasunarekin gozatu zutenek bere oroimenezko lehen topaketa hau antolatu dute. Luis Laskurainek azaldu digunez, "aitzakia ona da eskualdeko artisten arteko harremanak sendotzeko eta etorkuizunean ere topaketak egitea interesgarria litzateke. Oraingoan Arrasateko artistekin batera izan da baina gustatuko litzaiguke bailarako beste herri batzuetara ere zabaltea; aberasgarria izango litzateke eta horregatik arkitektura, musika edo dantza topaketak egiteko asmoa daukagu etorkizunean".

Astelehenean zabalduko den erakusketan 40 artista inguruk hartuko dute parte eta margo lanak, eskulturak edota zeramikak izango dira ikusgai. Beart elkarte-koekin batera, Arrasateko 12 bat artistaren lanak jarriko dira Kultur Etxeko erakustokian. Gogoratu behar da Abdon Juaristik pintura klaseak ematen zituela Arrasaten. Orain dela hilabete batzuk ere Abdonen ikasleek bere oroimenezko erakusketa zabaldu zuten Arrasateko Harresi aretoan. Bearteko artista denak ere parte hartzeko prest azaldu dira eta baliteke Bergaran izango den erakusketa gero Arrasatera eramatea, oraindik fetxarrik zehaztu ez bada ere.

Erakusketaren inaugurazioa datorren astelehean egingo da, 19:30etan Kultur Etxean. B



Erakusketan margoak, eskulturak eta zeramikak izango dira ikusgai. ARTXIBOIA

21era) eta edizio ikastaroa (urriaren 23tik azaroaren 27ra). Argibideak Kultur Etxeko bideo gelan.

► **Zine zuzendaritza** ikastaroa Urnietan Chus Gutierrez zuzendariaren eskutik, martxoaren 24tik

27ra eta apirilaren 6tik 8ra. Argibideak: 33 20 32.

LEHIAKETAK

► **Mendi Asteko Marrazki Lehiaketa**, 5. eta 6. mailako ikasleentzat.

Gaia: mendiko kirolak. Marrazkiak (DIN A 3 orrietan) martxoaren 24a baino lehen aurkeztu beharko dira Udal Kirol Zerbitzuan.

► **Txorimalo lehiaketa** Erramu Zapatuan, apirilaren 4an. Adinaren arabera.

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA,
ERA GUZTIETAKO
INSTALAKUNTZAK.

Kruz Gallastegi 2 behea
☎ 76 23 48



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 79 27 27 / 79 13 55

hiru talde izango dira. Izen-ematea apirilaren lehenengo baino lehen Jardunen, Kartzela Zaharrean. Argibideak 76 36 61 eta 76 08 19 telefonoetan

► Bergarako XIII. Literatur Lehiaketa.

Adinaren arabera bost talde bereiztuko dira eta lanak apirilaren 22rako eman beharko dira Udaleko Euskara Zerbitzuan. Argibideak bertan. 77 91 66.

► Ipuin erotikoen III. Lehiaketa, 1982an edo lehenago jaiotakoentzat.

Lanen luzera bi eta sei orrialde artekoa izan beharko da (DIN A-4 orritan makinaz tarte bikoitzean idatzita). Lanak, apirilaren 24a baino lehen, helbide honetara bidali behar dira: Euskarabilla elkarteak, 146 PK. 48 970 Basauri.

DEIAK

► **Dardo jaurtiketa** lehiaketa bihar eguna 17:00etatik aurrera Nahikari tabernan. Izen-ematea, 500 pezeta.

► **San Joxepe** jubilatuen elkarteak martxoaren 26rako Errioxara egun osoko irteera antolatu du. Santo Domingo bisitatu ondoren, bazkaria Haron egingo da. 2.400 pezeta. Izen-ematea 76 21 40 telefonoan.

► **Alpeetara eski irteera** apirilaren 10etik 17ra. Argibideak eta izen-ematea Pol-Poleko bulegoan (76 48 51), astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara.

► **I. Igartza Literatur Sorkuntzako beka** idazle berrientzat. Baldintzak: 35 urte bete gabe izatea eta, lan argitaratuak izatekotan, bakarka bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea. Proiektuak ekainaren 30a baino lehen bidali behar dira. Argibideak 88 90 94 telefonoan.

► **Ipuin kontaketa saioa** datorren egunean, hilak 26, 22:00etatik aurrera Pol-Pol tabernan.

KINTADAK

► **1958tik 62ra** bitartean Angiozarren jaiotakoen afaria martxoaren 28an. Izen-ematea: 78 22 80/76 54 81.

► **1956ko** Gipuzkoako kintoen bazkaria apirilaren 5ean Zarautzen. Joateko interesa duten bergararrekin 76 11 73 telefonora deitu.

► **1964an** jaiotakoen bazkaria apirilaren 25ean. Argibideak Plazako kioskoan (Luke). 1.000 pezeta.

► **1953an** jaiotakoen bazkaria uztailaren 4an Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezetako aurrerapeña) Antxonin bertan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades
Cosas que deje en La Habana
Eguena: 17:00, 19:30, 22:15.
Chacal
Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Cenizas del paraíso
Eguena, hilak 26, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema
Abre los ojos
Eguaztena: 19:00, 22:00.
Eguena: 17:00, 19:30, 22:15.
Eguakitza: 19:00, 22:00.

Jackie Brown
Zapatua: 16:45, 19:30, 22:15.
Domeka: 16:45, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:00, 21:45.
Martitzena: 19:00, 21:45.

EIBAR. Unzaga
Una gran aventura
Eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguena: 17:00, 19:30, 22:15.
Fallen
Eguakitza: 19:30, 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15

EIBAR. Rialto
Jackie Brown
Eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguena: 16:45, 19:30, 22:15.
Eguakitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 16:45, 19:30, 22:15.
Domeka: 16:45, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana
Los Borrowers
Eguena: 19:30.
Zapatua: 19:30.

Abre los ojos
Eguena: 22:30.
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Sagu txiki, sagu maite
Domeka: 17:00.

COSAS QUE DEJE EN LA HABANA

Zuzendaria: Manuel Gutierrez Aragon.

Aktoreak: Jorge Perugorria, Kiti Manver, Violeta Rodriguez. **Nena** (Violeta Rodriguez, Silvio kantariaren alaba), **Rosa** eta **Ludmila** Kubatik Madrilera etorritako hiru ahizpa dira. La Habanan utzitako bizimodu hobeago bat aurkitzeko itzaropena daukate baina uste baino zailtasun gehiago izango dute aurrera egiteko...

THE JACKAL (CHACAL)

Zuzendaria: Michael C. Jones.

Aktoreak: Bruce Willis, Richard Gere, Sidney Poitier. Errusiako mafiak hiltzaile bat (Bruce Willis) kontratatuko du Estatu Batuetako agentari bat hiltzeko. FBIko zuzendaria (Sidney Poitier), eta errusiar ofizial bat (Diane Venora) atzean izango ditu. Baina IRAko aktibista ohi baten (Richard Gere) laguntza ezinbestekoa izango zaie.


CENIZAS DEL PARAISO

Zuzendaria: Marcelo Piñeiro.

Aktoreak: Cecilia Roth, Hector Alterio, Leonardo Sbaraglia. Goya sarietan saritua izan zen arjentinar filme hau. Bi heriotzaren arteko erlazioa argitu beharko du **Teller** epaileak (Cecilia Roth); bata **Makantasis** epailearena (Hector Alterio) eta bestea epailearen etxean hilik azaldu den **Ana Muro** gaztearena (Leticia Bredice).

BERRIGARAK ez du gerta litekeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Eguneroko menuak,
parrilan egindako
erreki
bereziekin.



kintadak,
senide arteko
bazkariak, koadrilak,
despedidak...

DANTZARAKO PISTA ETA GUZTI!

San Juan auzoa, Elgetarako bidea, Bergara. Tf. 76 35 51.

Enkarguak hartzen dira

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihok, atek, manparak...



Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA

Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Ezker Sindikalak CC.00 sindikatuarekiko banaketa aurrera eramatea erabaki du. Juan Jose Azkarate "Errota" Euskadiko metal sektoreko kontseiluko kidea da eta Bergarako Ezker Sindikaleko arduradunak banaketaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

G. Zergatik desmarkatu zarete CC.OOtik?

E. Orain bi kongresu sindikatu barruko korriente modura eratu zen Ezker Sindikala. Ordutik ados ez ginen gaietan enmendakinak aurkeztuz, zuzendaritzari hainbat puntutan kritikatu... horrela ibili gara, orain dela gutxi, Nafarroan, Ezker Sindikaleko osasun laboreko arduradunak zuzendaritzatik kendu dituzten arte. Hori izan da nolabait banaketa piztu duena.

G. Zeintzuk izan dira diferentzia nagusiak?


E. Sindikatuak azken urteotan dena paktatu behar izan du; jubilazioak, erreforma... eta gu paktu horien kontra ginen. Bestalde, Euskadi mailan, arazo nazionalaren aurrean sindikatuak duen jarrerarekin ez gaude batere ados. Presoen gurasoekin egon eta mugimendu horretan sartzearen kontra agertzen da Comisiones. Beste sindikatu batzuk jarrera hobea erakutsi dute negoziazio politikoaren aurrean. Euskadin bizi dugun egoerarekin ikusten dugu ez dela jokabide aprobezko Comisiones-ena. Poliki-poliki gauzak pilatzen joan dira eta banaketa etorri da.

G. Sindikatuko baseek indarra galdu dute?

E. Jende gehienak pentsatu du sindikatu barruko lan hori Comisionesen agortu dela. Aparatoak indar gutzia dauka; goian hartzen diren erabakiek behean ga-

JUAN JOSE AZKARATE "ERROTA"
Bergarako Ezker Sindikaleko arduraduna

"Sindikatu barruko korriente modura eratu ginenetik diferentziak izan dira"



"Errota"ren ustez afiliatuen zati handi bat Ezker Sindikalean integratuko da.

ro eta eragin gehiago daukate, basetan mugimendu gutxi dago eta lan egitea ia ezinezkoa da, aparatuak manejatzen du dena. Herri mailan nahiz eta gauza asko eta onak egin, zuzendaritzaren bide ezberdinetik gindoazela nabaria zen. Ikusten dugu CC.OO bere ezkerreko izaera galtzen doala eta aurrera begira berdin ja-

"Ikusten dugu CC.OO bere ezkerreko izaera galtzen doala eta aurrera begira ere berdin jarraitzeko oinarriak ematen ari direla"

rraitzeko oinarriak ematen ari direla. Eta ez gaude prest sindikatua handitzeko, ez dugulako konpartitzen beste leku batzutan sindikatuak jendeak duen ikuspegia.

G. Zenbatek eman diote baietza banaketari?

E. Deba Garaian 1.050 afiliatu gara eta ejekutibaren %60ak banaketaren erabakiari baietza eman dio. Gauzak trankil, zalaparta eta jaleo barik egin nahi ditugu eta orain afiliatuei gauzak nola dauden azaltzen hasiko gara, guregana datorrenak zergatik datorren jakin dezan. Ezker Sindikalak afiliazio dexente dauka, lan asko egin da orain arte eta horri eusten ahaleginduko gara. Langileei aholkularitza eskeintzen jarraituko dugu, hori ezinbestekoa baita afiliatuak mantentzeko. Bergaran, historikoki guk eraman dugu sindikatueta afiliatuen zati handi bat behintzat gurekin etorriko da.

G. Beste sindikaturen batean integratuko zarete?

E. Gonbidapenak alde gutzietatik jaso ditugu. LAB eta ESK-CUIS sindikatuarekin hartu eman batzuk egon dira eta Confederacion General del Trabajoren eskutik ezkerrezko sindikatuaren konbergentzia bat sortzeko aukera ere hor dago. Baina oraindik ez dakigu beste sindikatu batekin elkartu edo Ezker Sindikala bezala jarraituko dugun. Piskat asentatu arte, garen lekutan ondo organizatu arte gure bidea egingo dugu eta gero beste sindikatuarekin hasiko ginateke diskutitzen elkarrekin egin daitekeen lana. Apirilaren 4an asanblada egingo dugu eta asanblada horretan gauzak argitzean hasiko direla uste dut. Uda ostean hauteskunde sindikalak izango dira eta orduko gauzak nahiko helduta egotea komeni zaigu. B

Elixamendiko Andra Mari eguna San Migelen ospatuko da aurten

Elixamendi ermita egoera kaskarrean dagoelako

Datorren eguastenean, hilak 25, Elixamendiko Andramari Martiko ospatuko dute angiozartarrak. Azken urteetan, ordea, ezin izan diote aspaldiko ohiturari eutsi, Mainddaoko Elixamendi ermita itxita dagoelako.

Elixamendi ermita herriko garrantzitsuenetakoa da, bere balio arkeologiko eta artistikoagatik ez ezik giza balio haundikoa delako. Baina egoera kaskarrean dago eta azken urteetan itxita egon da. Erretilan itoginak ditu eta paretak brintzaturuta daude.

Azterketa geoteknikoa

1996ko uztailean Koruko Aizarna Kultura Diputatuak barrutik ikusteko aukera izan zuen, alkatearen eta udal museologoaren laguntzaz. Orduan, Santa Katalina, San Juan eta San Matei ermitak eta Santa Marina eliza ere bisitatu zituen. Santa Marinako kanpandorrea berriretzeko dirulaguntzak emateko konpromezua hartu



1996ko uztailean Koruko Aizarnak Elixamendira egindako bisita.

zuen eta Elixamendiren kasuan, azterketa geoteknikoa egitea premiazkoztat jo zuen. Harrezkero, Santa Marinako kanpandorrea konpondu dute, baina beste ermitak zeudenetan daude eta ez zaio arazoari heldu.

Ur filtrazioak

Elixamendiren kasuan, antza denez, lur azpian fil-

tratutako urek eta Elgetara doan kaminoak eragiten dituzte kalteak. Jose Luis Aperribai Elgeta eta Angiozarko parrokoak esan digunez, 30 milioi pezetatik gorako aurrekontua egin du elizak ermita konpontzeko. Koruko Aizarnak parrokoari esan dioenez, konponketa faseka egin beharko litzateke, lehenengo, azterketa geoteknikoa eginez.

Ume txikiak bedeinkatzen

Bitartean, ermita noiz konponduko zain daude angiozartarrak. Izan ere, martxoaren 25ean ume txikiak eta haurrak bedeinkatzen eramateko ohiturari ezin izango diote eutsi aurten ere. Azken urteetan San Migelen ospatu dute eguna.

Saso batean, egun handia izaten zen eta Angiozartatik ez ezik, inguruko herrietatik ere etortzen ziren Elixamendira. Meza entzun eta umeak bedeinkatu ostean, erromeria izaten zen ondoko zelaitxoan.

Elixamendi Angiozarko parrokia baino lehenagokoa da; bere garaian parrokia zen. Umeari titia ematen agertzen den Amabirginaren irudia, 89 zentimetroko madariondoz egindako eskultura, gotiko estilokoa, San Migelen gordeta dago gaur egun. Jose Luis Aperribai parrokoak esan digunez, elizaren asmoa irudia berrietzea da: egurrari orain duen pintura kapa kendu eta jatorrizko itxura berreskuratzea. B

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 76 42 41

AGOITZ

Tapizdenda

Leizariako San Lorenzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxes: 76 04 77

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 76 15 09



Hainbat herritarrek bat egin du Etxanizen askatasuna eskatzeko sortutako plataformarekin.

Jose Mari Etxaniz askatzeko plataforma aurkeztu zen

Asteburuan 1.000 bat sinadura jaso ziren

Joan zen zapatuan aurkeztu zen San Martin plazan "Jose Mari Etxaniz Askatu" plataforma. Gartzelan 18 urte daramatzan preso bergararrari buruzko hitz batzuk irakurri zituen Juan Martin Elexpuruk plataformaren izenean: "Jose Marik beti burua tente. Apala eta samurra bai, baina gizajua ez. Iraindu, egurtu eta zigorzeldetan sartuko dabe, baina ezingo dabe humillau" esan zuen.

Bestalde, Iñaki Ibabe preso oihak Etxaniz askatzeko orain arte egindakoaren eta aurrerantzean emango dituzten urratsen berri eman zuen. Ibaiek esan zuenez, Kode Penal berria ala zaharra aplikatu, Etxaniz kalean egon beharko litzateke. Prestatu duten txostena Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordeari igorriko diotela eta Bergarako Udalean mozioa sartuko dutela aurrera-

tu zuen. Bestalde, Entzutegi Nazionalera joko zutela ere esan zuen. Kode Penal berria aplikatzea eskatzeko errekurtoa Entzutegi Nazionalean joan zen urritik dagoela esan zuen.

Astebukaerako firma biletan 1.000 bat sinadura jaso ziren, tartean, demokrazia garaiko Bergarako lau alkateenak. Plataformak antolatutako mariskadaren zozketan 1.370 zenbakiari egokitu zaio saria.

San Joxepe jubilatuen elkartearen Batzar Orokorra 25ean

Datorren eguaztenean, hilak 25, arratsaldeko 7:30etan, urteko Batzar Orokorra egingo du San Joxepe jubilatuen elkarteak Jubilatuen egoitzan. Zuzendaritza batzordeak, 1997an zehar egindako ihardueren eta diru kontuen berri emango du. Iaz antolatutako ekintzetan parte hartze handia izan eza zen. Bestalde, aurtengo urterako aurrekusi diren iharduerak eta aurrekontua aurkeztuko zaizkie bazkideei; hauek guztiak jasotzen dituen txostena banatuko zaie bazkideei.

Elkartearen asmoa urtean zehar era askotako iharduerak antolatzeta da: iharduera fisikoak (yoga, gimnasia eta mendi irteerak); kultur iharduerak (ikastaroak, hitzaldiak, abesbatza); eskulanak (marrazkia eta pintura); aisialdikoak (jokuak, dantza, bingoa); bazkariak, merienda, 87 urtekoei omenaldia, Mizpirualde egoitzara bisita eta gaiso dau den bazkidei bisita. Zuzendaritzak dei bat luzatu nahi die bazkideei Batzar Orokorrean parte hartzeko. B

ONENA
TINTATEGIA

Barrenkalea 29 BERGARA

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

i RUDI

**Erlojudenda
Bitsitegia**

Ibargarai 2
☎ 76 51 65

IZADI PILI GISASOLA

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 beheka.
☎ 76 58 83

LAB sindikatuak egoitza berria inauguratu zuen Ibargarain

Bulegoak goiz eta arratsaldez izango dira zabalik

Rafa Diez LABeko Idazkari Orkorrak inauguratu zuen joan zen eguakitzean sindikatuaren Bergarako egoitza berria. Inaugurazio ekitaldiari hasiera emateko, Ainhoa Agirreazaldegik bertso saioa eskaini zuen eta, jarraian, Rafa Diezek hitz batzuk luzatu zizkien bertaratutako 50 bat lagunei; amaitzeko, luntxa izan zen. Jendearen artean, LABeko afiliatu eta jarraitzaileak ez ezik, ELA eta Ezker Sindikaleko hainbat kide ere ikus zitezkeen.

Urte askotan herriko hainbat lokaletan alde bate-tik bestera ibili ondoren, azkenean Ibargarai kaleko 39an kokatuko da LABen egoitza berria. Aurretik, Masterrekan, Zabalotegin



Rafa Diez joan zen eguakitzean LABen egoitza berriaren inaugurazioan.

(Sindikatu Bertikalaren egoitza izan zenean) eta Arrano Zaharrean egon da; Hemendik aurrera, ostera, Ibargarai bulego berrietan, afiliatuei zein edozein langileri eskainiko zaio laguntza. Horretarako, goiz

eta arratsaldez (08:30-13:00 eta 15:00-19:30) zabalik izango dira bulegoak.

LABek 1976an eman zituen lehen urratsak Bergaran. Hasieran Ecenarron zuen indarrik gehiena; egun bigarren sindikatua da. B

300 bat bergararrek atera dute arrantzan egiteko lizentzia

Domekan hasi zen aurtengo arrantza denboraldia. Errekakoa abuztuaren 2ra arte izango da zabalik eta ürte-gietakoa irailaren 30era arte. Bergaran 300 bat zaletuk atera dute arrantzan egiteko lizentzia, bakoitza 1.100 PTAn.

1998a urte ona izango da Ollagorako Jose Tejadaren ustez: "euria egin du eta erreketan ur dexente dago" diosku.

Inguruko errekatxotan eta Zadorako urte-gietan aritzen dira Bergarako zaletuak, oso urruti joan nahi ez dutenean. Tejadak dio Bergarako errekarik onena Angiozarkoa dela eta amorrain gehien dituen, Osintxukoa. "San Juanen ere badaude baina erreka kutsatuta dago" esan digu. B

Guardiako zerbitzu konpartituaren aurka azaldu da Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailordetzak Arrasate eta Bergarako botiken artean gaueko guardiako zerbitzua txandaka antolatzearen kontrako erabakia hartu du. Martxoaren 5ean hartu zuen erabakia eta, hala, joan zen azaroaren 20an hartutako erabakia berretsitu du.

Arrasate eta Bergarako Udalek guardiako farmazia zerbitzu konpartitua izatearen aurkako iritzia eman zuten eta Jaurlaritzak arrazoia eman die erabaki honekin. Orain, Arrasate eta Bergara-

ko farmaziek epaitegietara joateko aukera izango dute, administrazioak euren interesen kontrako erabakia hartu baitu.

Gogoratuko duzuen bezala, 1992. urtetik txandaka antolatzen dute Arrasate eta Bergarako botikariek gaueko guardia zerbitzua. Botikariek Deba Garai osorako gaurdiako zerbitzua eskainiko duen farmazia bakarria Arasaten jartzeko proposamena ere egin zuten, baina honen kontra azaldu dira bailarako Udalak. B



PREKARIETATEAREN KONTRA. Aldi baterako langileak kontratatzeko enpresen (ETT) eta lanaren prekarietatearen kontra protestatzeko 150 bat lagun elkartu ziren eguakitzean Plazan. Manifestaziorako deia Duina ikasle koordinadorak, Jarrai gazte erakundeak, Txapa irrati libreak eta ELA eta LABek egin zuten. Manifestazioa "Gure eskaera: ETTak itxi" zioen pankartak zabaldu zuen. B

Berrigara

316 zenbakia.
1998ko martxoaren 18a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 76 03 97. Faxa: 76 29 77
E-mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil,
Mikel Elkorobezibar. **Maketazioa:**
Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina
Romero. **Harpidetza:** Gorka Elortza.
Testuen zuzenketak: Estepan
Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio**
kontseilua: Miguel Angel
Elkorobezibar, Alex
Labaen, Gorka Elortza. **Komikiak:**
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon
Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin
Elxepuru, Josu Okina, Luis Mari
Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop.
Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia:
Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Iritzi, protesta edo desioaren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

INTSUMISIOA... INDEPENDENTZIA!!!

Urtero gertatu ohi den bezala, azken aste hauetan berriz ere hainbat eta hainbat bergarar gaztek ejerzito espainiarra "zerbitzatzeko" deia jaso du. Gertaera honek berriz ere agerian uzten du ejerzito espainiarrak euskal gaztedia 9 hilabetetan bahituta eramateko (Euskal Herrian bizi den hainbat jauntxoren laguntzaz) atek zabalik aurkitzen dituela; honela, Euskal Herriko beste hainbat gazte-rena den bezala bergarar gazteen kasua ere euskal gazteok jasaten dugun bahiketaren adibide argi eta garbia da.

Bergarar gazteok jasaten dugun askatasun mozketaren honetan ezin da ezkutatu Bergarako Udaleko Gobernu batzordeak, Victoriano Gallastegi buru duela, daukan erantzukizuna. Honela, orain 2 urte inguru Udaleko Plenoan Bergara herri intsumitu izateko onartu bazen ere, PNV alderdi erregionalistak, Victoriano buru zuela, PSOE eta EAren laguntzaz, plenoan gehiengoz hartutako erabaki

hau atzera bota zuen euskal gaztediak orokorrean eta bergarar gaztediak zehazki urtean zehar erakusten duen jarrerara intsumituaren aurrean begiak itxiz eta beste behin ere gure herria zapaldu eta "espainiar inperioaren osotasuna bermatzen duen" ejerzitoari laguntza osoa emanaz; Bergarako Udaleko atek 3.000 herritarri ixten zaizkionean erakusten duten irripar faltsu horrekin, Victoriano alkateak, ejerzito espainiarrari udaletxeko atek irekita utzi dizkio.

Honela, PNV eta UPN alderdi erregionalistak gazteoi zuzentzen zaizkigunean mozorro baten atzean ezkutatu badira ere, mozorro horren atzean dagoen benetako jarrerara sumisio osoko jarrera da, Espainiarekiko menpekotasun osokoa, alegia. Esate baterako, hor dugu OTANen kasuan gertatua (Hego Euskal Herriak 1986. urtean egitura militar honetan partehartzeari ezezkoa eman zion), non PNV eta UPNk Madrilen 1997. urtean baiezkua eman dioten OTANen sarrera osoari; edota hor dugu Bergarako

kasua, non kode berriaren aplikazioan (intsumituak heriotza zibileraren behartzen dituen kode penala) PNV alderdiak babes osoa eman duen, honela euskal gaztedi intsumituari, eta bergararrari zehazki, hainbat lanpostu publikotan lan egiteko aukera eta hainbat dirulaguntza publiko ukatuz.

Euskal gaztedia borroka honetan erakusten ari den indar eta kemenak argiro azaltzen du espainol izateari uko egiten diola eta, horrez gain, muzin egiten diola ejerzitoak betetzen duen jokaera zapaltzaileari.

Bukatzeko, Espainiarekiko intsumitu izateko deia luzatzen diogu euskal gaztediari alor guztietan, jokaera hau garrantzitsua baita Euskal Herriaren eta norbanakoaren independentziaren bidean. Honela, intsumisioaren bidetik biharko Euskal Herri aske eta justuago baten alde borroka dezagun gaurdanik.

Bergarako Jarr...

tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Zein iritzi daukazu zirujia plastikoari buruz? Zuk zeuk erabiliko zenuke zirujia?



Aitziber Iturrikastillo

Konplejoren bat dutenentzat, aldaketak egiteko irtenbide ona iruditzen zait zirujia baina nik behintzat ez nuke erabiliko. Nahiago dut berdin jarraitzea.



Felix Uriarte

Bere figuratik bizi behar duen jendearentzat ondo iruditzen zait, bestela leokeria bat. Nik neuk ez nuke dirua horretan gastatuko.



Mari Angeles Lopez

Nik ondo ikusten dut, dirua daukanak defekturen bat konpontzeko aukera badauka... Nik ere aukera izanez gero erabiliko nuke, tripa piskat kentzeko adibidez.

Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Mikel Mujikak deitu zigun astelehenean BERRIGARARA esanez zeharo harrituta (baina batera pozik) dagoela, ia 30 urte ondoren Ramon Maria Lili 4-ko atari aurreko gunea txukuntzen hasi direlako. Benetan egoera errukigarrian zegoen aipatutako lekua eta ez zen ulertzekoa, inguru horretan jande asko bizi baita. Urte guzti hauetan zehar, Udalak alde batera laga duen eginbeharra ziren obra horiek, baina inork ez daki zergatik ez ziren egiten. Azkenean oinetarako (eta oineta-koendako) osasungarriagoa den lekua izango dute bertako bizilagunek eta begietarako atsegina- goa ere izango da denontzat.



Anastasio Herran

Ez du inolako kalterik egiten baina hori bakoitzaren araberakoa da... Ni behintzat gustora nago nire buruarekin eta ez nuke zirujiarik egingo.



Mercedes Moreno

Bakoitza den bezalako izan behar duela pentsatzen dut nik. Zirujia-aren kontra naiz eta ez nuke inolaz ere horretan dirurik gastatuko.



Isidoro Javier Rueda

Zirujiarekin jendeak dirua bota egiten duela pentsatzen dut. Baina bakoitzak nahi duena egin dezala; nik behintzat nagoenetan jarraitzea nahiago dut.

■ ikuspuntua: **iñaki artola**

Itsutzen hasiak ote?

Ni bai behintzat, ez bainien sinesten semeei esaten zidatenean beraien lagunak LASER izpiak zituzten linternekin jolasean zebiltzela.

- Baietz aita LASERRAK direla!

- Ez ume!! Argi gorria egiten duen linterna izango da, ezin da LASERRA izan!

Nire begiak platerak bailiran zabaldu ziren ordea, dena 100 pezetatan omen duen denda horietako batean ditxosozko linterna hori ikusi nuen. Egia zen, LASER izpiak ziren, ez ziren ez itxurazkoak, hantxe zeuden, merke eta on, edozeinen eskura, jostailu txiki eta kapritxo gisa erosten den horietako bat balitz bezala. Ez zegoen ez 100 pezetatan, 4.000 pezetatan baizik. Eta



eskerrak horri! Ikusten nuena sinestu ezinda, kuxatxoaren atzekaldeari egin nion so. Produktua erabat legez kanpoko zela argi ikusten zen, zeuzkan argibide apurrak ingelesez besterik ez baitzuten. Halere, ahalegin berezia eginez zerbait ulertzea iritsi nintzen: LASER izpiak zirela, oso kontu handiz erabiltzekoak, umeen eskutan ez zirela utzi behar, begientzat oso arriskutsuak zirela eta erabiltzen diren lau pilak (botoi erakoak) erabat kutsagarriak zirela.

"Itsu" zegoen dendariari, alperrik saiatu nintzen esaten produktu hura han eta horrela ezin

zela saldu. Negozio bikaina omen da une honetan LASERRAK saltzea. "Itsu" gaude gu-geu ere, 8-9-10 urteko seme-alabak 4.000 pezeta hartu eta zer den ere ez dakigun trastea erostera abiatzen bazaizkigu. "Itsu", gure osasuna zaintzea lanbide duten gizajende eta erakundeek, horrelako produktu arriskutsuak umeen eskura inongo babesik gabe agertzen uzten dutelako. "Itsu", edonon "ARMA" horiekin ikusi eta ezer esaten ez diegun guztiok. Tresna horren erakargarritasuna jendeari izpiak helaraztea baita, noski!

- "Itsu", itsuak, itsutzen, itsututa edo itsutu nahian.

Eta zu irakurle, ez bazara goian aipatutako "itsu" horietakoa erne ibili! Ez zaitetz jarri behintzat LASER linterna horiei begira, orduan bai benetanitsu gera baitzintezke. B

Entsalada epela



MIKEL ANDONI OLABARRIA,
AINTZANE REMENTERIA
eta IKER BEITIA
Agirrebeña jatetxeoak

OSAGAIK (4 lagunentzat)

- Letxuga kizkurra
- Erremolatxa
- Oliba olioia
- Beraktz xehetua
- Almeja
- Ganbak
- 4 xerra legatz
- 4 xerra makailau
- Zainzuri berdeak
- Azenoria xehetua
- Perrexila
- Gulak (eskukada bat)
- Sagar ozpina
- Gatza

PRESTAKETA

- Plater batean letxuga koroa bat egin. Gainean erremolatxa jarri.
- Sartagin batean oliba olioia eta beraktz xehetua ipini, almejak zabaldu eta, jarraian, ganbak bota.
- Arraina gehitu eta gero, beste dena gaineratu ozpina izan ezik.
- Dena egina dagoenean ozipin txurruzpada bat bota eta saltsa egiten laga. Su bizian dena.

PLATEREAN

- Koroaren erdian nahasketa jarri eta dena saltsarekin busti.

Gosarien garrantzia

BITTOR RODRIGUEZ, *dietista eta elikagaien teknologoa*

Gaur egungo gazteek ez diote gosari eman behar zaion garrantzia ematen. Askok ez dute gosaltzen eta eguerdi aldera *palmerak*, *bolloak* eta horrelako *txutxeriak* jaten dituzte. Hau ez da batere gomendagarria, grasa txarra dutelako. Gosaria eguneko otordurik garrantzitsuenetakoa da. Esmatzerakoan, gorputzak elikagaiak behar ditu. Gaztetxoek, gainera, guk baino energia gehiago gastatzen dute.

Beraz, gomendagarriena da eguna esnearekin (umeentzat kafea baino kakaia hobea da), zerealekin eta frutarekin hastea. Ia ume guztiak zerealak di-

tuzte atsegin, tostadak (gurina edo mermeladarekin) ere oso aproposak dira gosaltzeko eta, nola ez, fruta ale bat edo zuku bat. Ahal bada bolloak eta pastelak alde batera laga behar dira.

Gosaria aspergarria ez gertatzeko bi zereal mota nahastu ditzakegu, komertzialak (azukredunak) muesli naturalarekin adibidez. Eta fruta ezberdinak aukera, gehiago egoteko. Beti ere, barietateak gosaria erakargarriagoa egingo du. Helduen gosaria antzekoa izango da; kafea, tostadak eta fruta adibidez, normalean zerealak hartzeko ohitura gutxiago daukatelako. B

BIDEAK Imanol Sorondo

Bergaran eta bere inguruan egindako bideen zerrenda hau da:

1. Deba Ibaiko bidea, San Antoniotik hasita. Bide horretako udaletxeak izan ziren egileak, 1772 urtetik aurrera. Frantzisko Ibero maisua izan zen buru eta erabili behar ziren lurren aurrekontua alde batera utzita, 1.180.826 errealea izan zen; hala ere, bukatzerako bikoiztu egin zen. Herri bakoitza bere mugetako lurren jabe izanik, horren arabera ordaintzen zuen; horretarako ardoan, mistelan eta pattarrean pitxar bakoitzeko 8 marabediko diru saria ipini zuten. Bidearen mantenuaz herri bakoitza jabetzen zen; laguntzeko, Maltzagan bide saria ipini zuten. Nolanahi ere, gipuzkoako probintzia jabetu zen bide guztiaz 1850 urtean.

Bideak garai berrietara egokitu nahi ziren, batez ere, zalgurdi eta mando gurdientzako, zabalagoak, legunagoak, bazter zainduekin eta urentzako irteerarekin antolatuz. Lehendabizi horrela berrietara Arabatik Tolosara San Adrianetik zegoena izan zen 1737 urtean.

2. Gatzaga-Zumarraga Bergararik 1780 urtean. San Antonion zegoen bide saria eta posta etxea ere bai gidariak eta zaldiak prestatzeko eta aldatzeko.

3. Bergara-Durango Elgetatik 1833 urtean. Bergararrak izan ziren hau egin zutenak, akzionistak zeuden. Elgetan ipini zuten bide saria, eta honetarako 15 bat bereizketa bazeuden idi, gurdi, errubeda eta abarri begiratzuz. Bide egileek bazituzten beren araudiak.

4. Bergara-Getaria, Elusutik egiteko asmoarekin bide horri zegoen udaletxeak 1796 urtean elkartu ziren, merkataritza hobegotu eta Zestuako uretara errengo joateko. B



Txondorra Murinondon

Jesus Fernandezek ikatza egiteko txondorra egin zuen aurreko astean Murinondon. **Andres Gabilondo "Atxotegi"**k ekarri digun argazkian, ezkerretik eskumara, **Ignacio Albisua** ortuaren jabea, **Jesus Fernandez**, **Higinio Ruiz** eta **Jose Luis Arealillo** ikus ditzakezue. Jatorri naparra izanik, Jesus Fernandez eta bere lagunak maisuak ditugu txondorrek egiten eta emaitzak ere bistan dira. Txondorrek zortzi ikatza zaku eman zituen eta lau bat egunetan egon zen piztuta. Aspaldiko tradizioek ez dute hutsik egiten oraindik...



Zorion agurra Jose Luis Elkorori

Joan zen zapatuan, martxoak 14, Jose Luis Elkorok 63 urte betetzen zituela eta, zorion agurrak bidali nahi izan dizkiote Elay-ko langileek. Enpresa Komitekoak lantegi aurrean bildu ziren eta argazkia atera zuten, lehenbailehen eurekin lantegian izateko itxaropenaz.

Motorzale nostalgikoak

Duela hamar urte motor zaharrek **Donostia eta Bergara** arteko lehen ibilbidea bete zuten hainbat zale-tuk irteera haren urteurrena ospatu zuten zapatuan. Guztira, 50 motorzale bildu ziren eta kostaldetik Bergara etorri ziren. Eguerdian euren motor klasikoak erakutsi zituzten Frontoian eta, era berean, gidatzeko duten abilezia azaldu zuten ikusleen gozamenerako. Eguraldiak ere lagundu zien motorzale nostalgiko hauei eta, Osintxun bazkaldu ondoren, Donostiara itzuli ziren. Espero dezagun beste 10 urte igaro behar ez izatea motor eder hauekin gozatzeko. Hurrengora arte!!



JUAN ANTONIO MIGURA

Kabinarik gabe Burdiñaten

Domeka goizean argazkian ikusten den moduan azaldu zen **Burdiñateko kabina** telefonikoa. Zapatutik igandera bitartean, goizeko bostak aldean, Azpeitiko A.Z.A. 21 urteko gazteak bere Ford Escort kotxearekin jo zuen kabina eta erabat txikitu zuen. Gazteak positibo eman zuen Ertzantzak istripuaren ondoren egin zion alkoholemia kontrolean. Zorionez istripua gertatu zenean ez zen inor deirik egiten. Argazkia ikusita, telefono mobilek segurtasun gehiago ematen dute..



M E N D I A S T E A

Martxoaren 30etik apirilaren 5era bitartean izango den MENDI ASTEA dela eta, horren inguruan lehiaketa bat antolatu dute **Jardun Elkarreak**, **Pol-Pol Mendizale Taldeak** eta **Udal Kirol Zerbitzuak**.

Lehiaketan edozeinek har dezake parte. Beraz, badakizue, hartu boligrafoa eta bete ezazue orriaren barrenean dagoen txarteltxoa eta bidali martxoaren 27a baino lehen Pol-Pol mendi elkartera 19:00etatik 20:30etara.

Jasotako txartelen artean mendiko materiala zozketatuko da eta saria apirilaren 2an, 19:30etan banatuko da.

GALDERAK

- 1 Zein da lñurrategi anaiak eta Josu Bereziartuak aurtengo neguan lortu ez duten mendiaren izena.
- 2 Zenbat metro ditu Hirukurutzeta mendiak?
- 3 Badakizu Aizkorri mendikateko hiru tontorren izena?

MENDIRAKO MATERIAL TEKNIKOA BEHAR BADUZU...

- LAzkanon, bizi guztirako garantia duten motxiletatik hasita, izerdia kanpora botatzen duten galtzerdietaraino, dena daukagu.
- Gure berezitasuna mendiko botak. Sympatex, Gore-Tex eta haizedun kamaradunak

Lazkanero
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA. Tf. 76 25 03



ERANTZUNAK

1:
2:
3:

Izena:

Deiturak:

Telefona:

Bete txartela, moztu eta bidali Pol-Pol Mendi Elkartera martxoaren 27a baino lehen (19:00etatik 20:30etara).

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 13 zenbakia. 1998ko martxoaren 18a.

Umeak Bergarara pizinetara

60 bat antzuolar iaz Zumarraga eta Bergarako igerilekuetako bazkide

Joan zen asteen hasi ziren eskolako neska-mutikoak berriz ere Bergarara igerilekura joaten. Urtero joaten omen dira igeri egiten ikastera, nahiz eta eurak herriko igerilekuan aritzea nahiko luketen.


Aurten 72 ume hasi dira ikastaroan eta horietatik 16 neska-mutil lehenengo aldiz joaten dira. Eskolako irakasleek dioenez "4. mailarako ikasita iretzen badira ere, igarri egiten zaie urtean zehar ez direla uretan ibiltzen; joaten diren umeetako batzuei uretan ibiltzeko ohitura falta antzematen zaiela esan digute igerilekuko arduradunek".

Eskolako haurrez gain, badira herrian Bergarako Agorrosin igerilekuetara joaten direnak ere; iaz, batzuek beste hileko 40 lagun joaten ziren eta aurten 36. Zumarragako Izpila polikiroldegira ere joaten dira antzuolarrak; iaz 21 antzuolar egin ziren bazkide eta aurten 9 lagunek bete dute bazkide izateko txartela.

Igerilekuak, aspaldiko proiektua

Antzuolako igerilekua eztabaida bat baino gehiago sortu duen gaia da. Mikel Larrea alkateak adierazi digunez, "Olarango etxearen ondoko etxebizitzaren proiektuan zona publiko bat egingo da eta pizinentzako leku aproposa izan daitekeela aurreikusitako dugu".

Udalak lehen ere aztertu izan du igerilekua egiteko asmoa, baina arrazoi bategatik edo beste bategatik, gauzatu ez den proiektu horietako bat da. Gipuzkoako Foru Aldundiak kirol ekipamenduen plana egin zuenean, udalak igerile-



Eskolako umeak Bergarako pizininan.

kuen eskaera egin zuen, baina Diputazioak ez zuen onartu. Udalak, hala ere, bere kezka ez ote litzatekeen hobe izango inguruko herrietako igerilekuetarako garraiobideak ipintzea, bertan pizini-

nak egitea baino. Mikelek azaldu digunez, "egitekotan ere irekiak izango lirateke, batez ere, kostu aldetik igerileku estaliak egitea gehiegizko kostua izango litzatekeelako udalarentzat".

■ ■ ■
Antzuolan pizinak egitekotan irekiak izango lirateke, estaliak garestiegiak liratekeelako
■ ■ ■

Zuhaitz Eguna ospatzen



Aitor Arrieta

Orain dela 25-30 urte gure aitona-amonak dirua eman-go zitelakoan landatutako insignis pinuak botatzen ari dira gaur egun. Batzuek zelai eta basoetan pinu mota hori sartzen jarraitzen dute, baina badira beste zuhaitz mota batzuk sartzen dituztenak, egur hobe ematen duten zuhaitzak (douglassa, larizioa, haritz amerikarra...). Badira bertako zuhaitzak sartzen dituztenak ere, baina egurraren negozio horrek paisajearen duen eragina dela eta, zuhaitz eguna ospatzeko beharra ikusi dugu.

Egur hori guztia kontsumitzeaz gain, tropikoetatik datorren egurra ere kontsumitzen dugu (altzari, zoru, ate, musika tresna...). Afrika, Asia eta Hegoamerikatik datorren egurra esplotatu bakarrik egiten dute; inork ez ditu sartzen ateratzen diren arbola horien ordezkioak. Gure garaian egin genuen moduan, hango basoei komeni zaizkie guk kontsumitzeko zuhaitz landaketak, nolabait basoak errekuiperatzeko. Baso horiei lagundu beharko genieke: 1.- Guk dihardugun moduan bertako landaretza erreproduzitzen erakutsi. 2.- Guk kontsumitzeko botatzen diren zuhaitzak landatu. 3.- Bertako nekazariari egurretik etekina ateratzen erakutsi, euren produktioetik bizi-itzien ikas dezaten.

Nire ustetan, denborarekin, tropikoetan ere zuhaitz eguna ospatu ahal izango dute.

Ska gaua Gaztetxean

Skalariak eta Arawak taldeak etorriko dira martxoaren 27an, Gaztetxearen 12. urteurrena dela eta antolatutako ska festara. 21:00etan hasiko da ska jaia eta kontzertua berriz, 23:00etan.

Gaztetxeko arduradun berriek antolatzen duten bigarren kontzertua izango da datorren asteko zapatuan egingo dena. Arduradunek adierazi digutenez "ska tankerako dekoratuarekin erabat itxuraldatuko dugu Gaztetxea gau horretan, giro aproposa sortzeko". Iaz herriko jailetan egon ziren Skalariak taldekoak aritu-

ko dira gaueko hamaiketatik aurrera Arawak talde gasteiztarrekin batera, baina Gaztetxekoek esan digutenez "jaia bederatzietan hasiko da, orduan zabalduko ditugu ateak, aurreko egunetik itxita egongo baita Gaztetxea, dena gertatzeko. Sarrera 500 PTA izango da".

Babajana martxoaren 29an

Goizean, mendi irteera Trekutzerara, gosea egiteko. Ondoren, babajana 1.500 pezetan. Izen ematea martxoaren 26a baino lehen.



Skalariak herriko jailetan eskainitako kontzertuan.

Ainhoa Larrañaga, Idolazeko lehen b

Maripi Laskurainek bete duen kargua beteko duzu hemendik aurrera. Otsailaren 26an Idolaz Batzar Orokorra egin zenu-ten; zer moduz joan zen?

Gure ilusio guztiarekin antolatu genuen, baina juntakideez gain, bazkide bakarra agertu zen. Egoera hark bazkideen laguntza eza aztertzeraz bultzatu gintuen, zeren ez da soilik batzarrera ez etortzea, lehen ere inkesta bat bidali genien, euren parte hartze aktiboa eskatzen eta oso

erantzun gutxi jaso genituen.

Zerbait erabaki al zenuten gainean?

Erronka berri bati heltzeaz jarraitu genuen; ez daukagu oso argi baina erabakien eta elebazarren munduak hurbiltzen zuten. Zein izan bi multzo horien banatzailea. Ur orain arteko lana baztertu gabe, erabakia izaten saiatu nahiko genuke.

Horretaz gain, zer antolatu...



Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak



TXOMIN
garajea

Mekanika orokorra

Lizarragako hiribidea 8 ANTZUOLA
Tf. 78 70 77

Udal idazkari berria

Gazinema



Aintzane, idazkari berria.

Bermeoko udaletxetik Antzuolara etorri da Aintzane Ezpeleta arrasatearra. Iñigo Garitanok lagatako kargua hartu zuen joan zen asteko eguenean.

Udaletxeko idazkari lanpostua bi-tarteko funtzionarioek bete dute azkenengo urteetan. Izan ere, udalak ez du ahalmenik behin betirako langilea izendatzeko, hori Madrilen esku baitago. Horregatik, plaza hori bete bitartean, udalak behin-behineko langilea hartzen du.

Hori dela eta, esperientzia hartzen joan ahala lanpostu finkoa lortzera jotzen dute funtzionario interino horiek. Horixe da Antzuolan azkenengo urte hauetan hainbeste idazkari izatearen arrazoia.

Bi hilabetez Valen Moñux aritu da idazkari halabeharrezko lanetan. Abendutik ez da Gobernu Batzorderik egin eta hartutako erabaki guztiak, alkatetzaren dekretu bidez hartu dira.

Antzuola, "zubia"

Orain arte udaletxeko idazkari lanetan aritu diren guztiak beste nonbaiten lanpostu fijoak lortu dituzte. Antzuola herri txikia izanda, lan ezberdin asko egin behar izaten dituzte eta gai asko ezagutzera heltzen dira. M^a Jose Garitanok adierazi digunez "Antzuola beste lanpostu baterako zubia izaten da". Horren adibide dira, Jose M^a Eraña, Arrasateko udaletxeko pertsonal burua; Belen Txintxurreta, Mankomunitateko idazkaria; Juan Inazio Galdos, Bergarako udaletxean hirigintza sailean ari dena, eta izan dugun azken idazkaria, Iñigo, Arrasateko Ongizate Sailean dagoena.

Martxoaren 20an, eguakitzan, *Memoria Letal* filmea eskainiko dute Gazinemakoek 22:00etan, eta domekan, martxoak 22, *Dragonheart* filmea emango dute 16:30etan. Hilabete honetako azkenengo asteburuan, berriz, *Sleepers* eskainiko dute eguakitzean, martxoak 27, 22:00etan eta domekan, martxoak 29, *Asterix en America*, 16:30etan.

Patxiko Txerren Txiki ipuingintza

Patxiko Txerren literatur lehiaketaz gain, Udalaren Kultura eta Kirol Batzordeak haurrentzako Patxiko Txerren Txiki ipuingintza antolatu du. 12 urtetik beherakoentzat antolatu dute eta ipuinak idazteko bi baldintza izan beharko dira kontutan; batetik protagonista nagusia Patxiko izatea eta bestetik istorioa Basalde auzoan kokatua egotea. Idazle bakoitzak ipuin bana aurkeztu ahal izango du eta horretarako azken eguna, apirilaren 21a izango da. Partehartzaile guztien artean, liburu zozketa egingo da udal liburutegian, apirilaren 23an, eguena, 19:00etan. Ipuinak udal liburutegian ipiniko dira ikusgai egun horretatik aurrera.

Udalaren oharra

Deba Garaiko Mankomunitateak aurreikusitako zabor biltegien erabilera eskasa ikusirik, Udalak Hondakinaren Gordailu Alternatiboak jarri zirela gogorarazi nahi du. Etxeetako ohizko zabor bilketa zerbitzuak jasotzen ez dituen hondakinak botatzeko, Bergarako San Kristobal auzoan (Angiozarko errepidean) kokatua dagoen gordailura joan daiteke, 9:00etatik 12:30etara eta 16:00etatik 19:00etara astegunetan eta 9:00etatik 13:30etara zapatuetan.

ent berria

rtengo urterako?

Ohizko sentsibilizazio kanpainaz gain, abileraren neurketa eta ikastaro eta jardueren batzuk ere izango dira. Hala ere, programa gure beharren arabera moldatzen joango gara.

Zertan ari zarete orain?

Urruñako ikastolaren laguntza eskatzen ari gara. Nire ustez, horrelako laguntza gehiago landuko ditugu hemendik aurrera.



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 76 60 89



Gabilondo-Arregi harategia

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 76 62 90

Antzuolari Antzuolatik

Kaxianok *Kantari naiz bizi* liburua aurkeztuko du martxoaren 28an zinean

Orain dela 65 urte jaio zen Kaxiano Iburguren Erautza baserrian, hala ere txikitan familiarekin batera Lizartzara joan zen eta bertan bizi da gaur egun. Bere lehenengo diskoa, *Itsasontzi baten*, 1986an grabatu zuen, baina aspalditik dira ezagunak Kaxiano eta bere soinua.



Erronomia bat baino gehiagotan egon zare gure herrian

Orduan artean ez nituen kantuak grabatzen; San Blasen izango zen lehenengo erronomia, gero Andra-Maritan ere egondu naiz Antiguan. Kalebarrengo jaietan askotan izan naiz. Baina bestela ere joaten naiz Antzuolara, kinto eguneko bazkarira; lagun asko ditut bertan.

Zure lehenengo urteetan, Txomin Garmendiarekin, gaur egun Ausporen zuzendariarekin, aritu zinen plazaz plaza; nolakoak ziren irteera haiek?

Orduan diferenteak izaten ziren erromeriak; orain hasten diren orduan amaitzen ziren eta dantzarako amorratzen egoten zen jendea.

Liburuan diozu "Nere nahia beti izan da barnean senti dutena kantuen bidez kanporatzea. Horretarako, dantza-mota edo era askotako eritmoak erabili ditut". Zein da gehien atsegin duzun kantua?

Nirea beti erronomia giroa izan da; lehen dantza lotua egitea pekatua zen, batez ere herri txikietan, baina balsak dira gehien jotzen nituenak; noski, dantza sueltuan, arin-ariña eta fandangoa. *Itsasontzi baten* eta *Zorionak* dira jendeak

gehien atsegin dituenak, neuri bat hautatzea zaila egiten zait.

Liburuan 78 kantu bildu dituzu. Horiek al dira dituzun kantu guztiak?

Papeleratuta neuzkan kantuak horiek ziren, baina badauzkat banaka bazuk gehiago.

Datorren asteko kontzertuan kantu berririk eskainiko al diguzu?

Azken diskako kantuak joko ditut, *Soiñu eta kantu* diskakoak.

Zein da zure jaioterriaz duzun orotzapena?

Nire burua Lizartzan ezagutu nuen;

ama hil zenean urte pare bat egin nituen Erautza baserrian. Oso txikia nintzen han egon nintzenez, 5 edo 6 urte, baina Moruaren Alardeaz gogoratzen naiz, benetakoa zelakoan negar egin nuela gogoratzen dut.

Antzuolari eskainitako kantua ere jaso duzu; zergatik egin zenuen kantu hori?

Beste gai bat hartzen den bezala, jaioterria ere kantu baterako gaia izan daiteke. Kantua egin nuenean, grabatu aurretik Antzuolan egon nintzen iritzia eskatzen eta gustatu egin zitzaizenez, grabatzea erabaki genuen.

"Kantari naiz bizi", zinetokian

Kaxianoren liburuaren aurkezpena zinetokian izango da, 18:00etan. Hirugarren mailako neska-mutikoek ere hartuko dute parte saioan, *Antzuolari eta Itsasontzi baten* kantatuz.

■ ■ ■
 "Agur Antzuolari, gu jaiotako euskaldun txoko zoragarria agur, herritarrei Arrola mendi azpian dugu gure kabia"
 ■ ■ ■



Kaxianok ia bere bizitza osoa darama herriz herri erromerietan.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxo... estalduak.
Gotelesa, iztukuak eta
bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA
 ☎ 76 60 39 ☎ 76 19 98

GOROSTI
Taberna

☎ 76 62 96
 Zurrategi plaza ANTZUOLA



DESKARGA
AUTOAK

Antigua auzoa z/g Antzuola.
 Tf. 76 62 75



Elkartasuna bultzatuz

Caritas, behartsuengandik gertu lanean

Isilean lan egiten duen erakunde horietako bat dugu Bergarako Caritas. Behartsuengandik gertu egon nahirik, urtean zehar laguntza eskeintzen die Caritasek langabetuei, pobreei, eskaleei eta beste hainbat marjinaturi. Solidaritatea eta elkartasuna eskaintzen 50 urte bete ditu Caritasek dagoeneko. Bergaran ere bada honetan lanean gogor ari den talde bat.

Donostiako Elizbarrutiak bultzatuta, orain 50 urte sortu zen Caritas erakundea eta berehala Gipuzkoako herri gehienetara iritsi zen. Bergaran Parrokietatik sortutako lehen ekintzetako bat izan zen eta ordutik makina bat jende kolaboratu izan du erakunde honekin. Gaur egun 32 lagun ari dira Caritasen inguruan lanean Bergaran, Antzuolan eta Elgetan. Kopuru horri ekintza zehatzetan parte hartzen duten zazpi lagun gehitu behar zaizkio. Parrokia bakoitzak bere bilerak egiten dituen arren, Antzuola, Elgeta, Elosu, Osintxu, Angiozar eta Santa Marina eta San Pedroko taldeak hilean

behin elkartzen dira, hileroko azken martitzenean hain zuzen eta aldi bakoitzean leku batean. Arantxa Odriozola dugu inguru honetako Caritaseko arduraduna.

Kristau ikuspegia

Elizako erakunde bat izanik, kristau ikuspegitik inguruan diren behartsuengana hurbildu eta laguntza emateko helburua dauka Caritasek. Bergaran zerbitzu ezberdinak eskeintzen ditu: oinarrizko harrera eta ekintzak, arropa banaketa, eskola laguntza, laguntza ekonomikoa eta aholkularitza juridi-

Gaur egun 40 bat lagun ari dira Caritasen lanean. Bergara inguruko taldeak hilean behin elkartzen dira proiektu ezberdinak aztertzeko. Sierbetan (goiko argazkian) erropategia egokitu berri dute.

koa, besteak beste. Oinarrizko harrera eta ekintzei dagokienez, eskaera ezberdinak egoten dira: ekonomikoak, etxebizitza, elikadura..., etabar luze bat. Laguntza parroketako taldeek bideratzen dute. San Pedroko parroketako bilerak Komenioko 4. zenbakian egiten dira hileroko bigarren eta laugarren martitzenetan, 18:30etatik 19:30etara eta Santa Marinakoak Sierbetan, lehen eta

hirugarren martitzenetan ordutegi berarekin. Talde bakoitzean 12 bat lagun ari dira lanean. Arantxa Odriozolak azaldu digunez, "urtean zehar jende dexente dator laguntza eske egoera ezberdinak direla medio eta guztiak ez dira kasu larriak izaten, denetik dago: dirulaguntzak, tramitazioak, arazo pertsonalak...".

Erropategia berritu

Erropategia Sierbetako lokalean egokitu berri da. Lehen Monja Zaharretan zegoen zabalik eta orain denda itxura eman zaio eta hilean bi egunez zabaltzen da erropa banaketa egiteko: lehenengo martitzenean 15:00etatik 17:00etara eta hirugarrenean 17:30etatik 19:30etara. Erropa emateko interesa dutenak, berriz, bigarren martitzenean joan daitezke Sierbetara, 15:00etatik

17:00etara. Erropategiak erantzun onak eman du betidanik eta jasotako erropak (Irunetik birziklatuta bidaltzen dute orain) txukun eta garbi eskegita dago Sierbetan horretarako egokitutako gelak batean. Herritarrak ez diren eskaleak ere hurbiltzen dira zenbaitetan bertara. Behar duten erropa ematen zaie eta janaria ere bai, hala eskatuz gero. Hala ere, eskaleek ez dute bertan lo egiteko aukerarik izaten. Udalak Bilbo, Donostia edo Gasteizera joateko autobus txartela ordaintzen die eskaleei, bertan eurrei zuzendutako aterpetxeak baitaude.

Eskolako laguntza, berriz, arazoak dituzten haur eta gazteei eskaintzen zaie. Eskola porrota saihestu nahirik, Caritaseko talde batek ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei beharrezkoak zaien laguntza ematen die, materia bakoitzean dituzten zalantzak argituz eta

Caritasek jasotzen duen dirua laguntza ezberdinetara bideratzen da. Joan zen urtean hiru milioi t'erdi banatu ziren eta 60 bat kasu atendidu ziren herrian



ARTXIBOA

Caritasek eskaintzen dituen zerbitzuen artean eskola laguntza dago. Ikasketak aurrera ateratzeko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza ematen zaie.

Jasotako erropa egokitzeko tailerra jarriko da martxan

Caritasek proiektu berria jarriko du martxan datozen asteotan: Sierbetan zabaldutako erropategiaren ondoan, jasotako erropa egokitzeko tailerra irekiko du. Lokala egokitzeko lanetan hasiak dira eta laister beharrezko tresna eta baliabideak biltzeari ekingo diote. Proiektu honek bi helburu dauka: alde batetik banatzen den erropa egoera onean banatzea (garbi eta txukun) eta bestetik prestakuntza eta lanbide tailer bat osatzea. Hasiera batean, bost pertsona arituko lirake bertan egunero lanean, nahiz eta oraindik ez den proiektua guztiz definitu. Tailer honetan jasotako erropa aukeraketa egingo da, konponketa lanak egingo dira eta erropa plantxatu egingo da. Caritaseko arduradunen arabera, proiektua

posible izateko laguntza ezberdina jasotzea ezinbestekoa zaie eta horretarako herriko erakundeengana laguntza eske joateko asmoa daukate.

Proiektu berri hau apirilaren bukaerarako martxan egongo dela espero dute Caritasekoek. Bien bitartean, esan bezala, beharrezko tresnak jasotzen ahaleginduko dira: labadora bat, zentrifugadora bat, bi plantxa, josteko makina, arroparentzako kurpildun barrak, pertxak, metalezko estanteriak, ordenagailu bat eta bulegoko materiala, besteak beste. Edozein eskaintza edo galdera egiteko, interesatuak Bergarako Caritaseara zuzendu daitezke, eguzten edo eguenetan, 16:00etatik 18:00etara 76 11 98 telefonoan. B

Argazkian, Sierbetan martxan jarri den erropategia. Behartsuei erropa banatzen zaie eta laister jasotzen den erropa egokitzeko tailerra irekiko da. Erropa kanpondu eta plantxatu bertan egingo da.



ikasketetarako zaletasuna pizteko helburuarekin. Lan honetan prestakuntza berezia duen bolondres talde bat aritzen da. Aholkularitza juridikoaren kasuan ere beste horrenbeste gertatzen da eta abokatu batek bere zerbitzua eskaintzen du, jendeari suertatzen zaizkion kasuetan aholkularitza ematean.

Hiru milioi t'erdi

Azkenik, laguntza ekonomikoa dago. Gutxieneko errentarik gabeko familia edo pertsoneri lehen beharrei aurre egiteko dirulaguntzak banatzen zaizkie, beti ere Caritasen irizpideak jarraituz eta kasu guztiak diskrezio osoarekin aztertuz. Gai delikatuak, pertsonalak, izaten dira askotan eta taldetik atera gabe tratatzen dira. Bergarako bailaran hiru milioi t'erdi pezeta inguru banatu zituen Caritasek iaz. Hori bai, bide ofizialeatik bideratu daitezkeen laguntzetan, Caritasek ez du eskurik sartzen. Udalak esate baterako pobrezia laguntzak banatzen ditu eta Caritasek laguntza horiek heldu bitarteko tarte bat betetzen du, familia bakoitzari ahal duen laguntza emanez.

Diru sarrerei dagokionez, banatzen den guztia bi bidetatik iristen da: herritarrek ematen duten laguntza alde batetik eta elizan egiten diren kanpainen jasotzen dena bestetik. Etxerik etxe

dirulaguntza jasotzeko Caritasen sobrea banatzea ere aspaldiko ohitura dugu. Gaur egun erakunde publikoetatik ez du dirulaguntzarik jasotzen Caritasek. Arantxa Odriozolak argitzen digun moduan, "jasotzen den guztia banatzen da, Caritas ez da geratzen diruarekin eta jaso ahala eta eskakizunen arabera banatzen dugu. Joan zen urtean hiru milioitik gora jaso genituen eta denera 60 bat kasu atendidu ziren gure bailaran. Era askotakoak izan ziren: pobrezia, langabezia, eskaleak...".

Pobrezia modu berriak

Caritas aurpegi berria bultzatzen ari da orain. Odriozolak esaten duen moduan, "gizartea eta bizimodua aldatzen diren neurrian garai berrietara egokitzeko ahalegina egiten dugu Caritasen. Pobrezia modu berriak sortzen dira gaurko gizartean eta horiek atzitzen saiatzen gara, kristau ikuspegitik eta inolaz ere ez jarrera paternalista batekin. Beraz, behar ezberdinak sortzen diren heinean Caritas ere zabalduz doa".

Partehartzeari dagokionez, lehen esan bezala, talde bakoitzean lan talde bat dago bertako egoerak aztertu eta egoera ezberdinei erantzunak emateko. Talde bakoitzak arduradun bat, diruzaina eta idazkaria ditu. Lan talde ba-

Caritasen diru sarrerei dagokionez, bi bidetatik iristen da dirua: herritarrek ematen dutena alde batetik eta elizetako kanpainen jasotzen dena bestetik

koitzak egiten dituen lanetatik aparte, ekintza konkretuak egiten diren bakoitzean jendeak parte hartzeko ohitura dauka eta Arantxa Odriozolak argitu digun moduan, "jende gazteak ere gero eta gehiago hartzen du parte".

Donostiako Elizbarrutiak deituta, hiru hilabetetik behin bailara ezberdinetako arduradunak biltzen dira Donostian, kanpaina ezberdinak bideratu eta egoera bereziak aztertzeko. Formazio aldetik ere programa ezberdinak bideratzen saiatzen dira, tartean errealitatearen azterketa, sortzen diren arazoan aurrean hartu beharreko jarrera edota bolondres izateak zer suposatzen duen lantzeko. Helburua, behartsuei eskua luzatu eta solidaritatea eskaintzea. Caritasen elkartasun edota solidaritate alorrean egiten duen lanaren errekonozimendu gisa, gizarte arloko Sabino Arana saria jaso zuen iaz. B

Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

EGUENEAN BARRUAN

09:30: Poli. Taberna-La Peña DML La Juve

EGUENEAN KANPOAN

10:30: Amilotx-Usoa La Peña DML
 11:30: Erdibitarrak-Txipiron Usoa
 12:30: Etengabe-Gazteak Txipiron

ZAPATUAN BARRUAN

16:00: Bar Ganbara-Autoberezi Indargorri
 17:00: Indargorri-Eri Sirimiri Bar Ganbara
 18:00: Matxakategi-Aldoka Maldoka Eri Sirimiri
 19:00: Patatus-Igandekoak Aldoka

DOMEKAN BARRUAN

10:30: Komando Piperrak-MRW Artusamak
 11:30: Artusamak-Shaktale Komando
 12:30: Uve Bikoitza-Jakina PT Shaktale
 16:00: Azpeitxi Jatetxea-Pagomendi Bayer
 17:00: Bayer-Ezinleike Pagomendi
 18:00: Amozkibar-FAC Ezinleike
 19:00: Manitou-SLO Amozkibar

argi!

Partidu erabakiorrak

Maila guztietan txapelketa bukatzeaz dago eta asteburuan jokatu diren partiduek sailkapenak erabakiko dituzte. Bigarren mailan izan ezik, gainontzekoetan irabazleak erabakitzeke baitaude.

jokoz kanpo



Edu Agirre ETXAGI

G. Zer moduz zabilzate?
 E. Jeitsierako promoziotik libratzeko lanetan gabiltza. Joan zen urtean bigarren mailatik igo ginen eta igartzen da.
 G. Diferentzia handia dago bigarren eta lehenengo mailaren artean?
 E. Lehenengo mailan seriotasun handiagoa dago. Bestela ez dago horrelako diferentziak.
 G. Gehien gustatu zaizun taldea?
 E. Lehenengo itzulian Azpeitxi asko gustatu zitzaidan. Halere, talderik onenarikoa A Ze Flaxa Etxagi da.
 G. Ze postutan jokaten duzu?
 E. Atzealdean.
 G. Golik sartu duzu?
 E. Gutxi.
 G. Zaindu duzun aurrelaririk arriskutsuena?
 E. A Ze Flaxako Bittor Jimenez.
 G. Real Uefarako sailkatuko da?
 E. Ez dut oso argi ikusten baina uste dut baietz.
 G. Zeinek irabaziko du Liga?
 E. Barcelonak
 G. Eta mundiala?
 E. Brasilek.
 G. Ligako jokalaririk onena?
 E. Luis Enrique.

gora eta behera



Jauja OH Zerezos

Jauja OH Zerezos taldeak 4-3 irabazi zion A Ze Flaxa Etxagi liderrari eta emaitza horien esker Mongatxurra taldea dugu lehen mailako lider berria, liga bukatzeko 2 partidu geratzen direnean. Golegileen sailari dagokionez launa goleku jokalaririk mordoxka dago. Polideportivo Taberna Jorge Mancebo eta Miguel Alonso, Pagomendiko Ibai Elortza, Ufalako Igor Legazpia eta Uve Bikoitzako Joseba Ilzarbe.



Aste honetan ez dugu inor jarri atal honetan guztiak oso ondo ibili baitira.

emaitzak

OH Zerezos-A Ze Flaxa Etxagi	4
Arloteak/Oilagorra-Bar Canalejas	0
MongatxurraK-Bar Canalejas	6
Pagomendi-Bildurbarek Opel/Lam	6
Etxagi-Azpeitxi Jatetxea	5
Errotagain-Agiñaspi	5
Ufala-Amozkibar	5
FAC-Bayer	5
SLO-Guadalest	5
La Juve-Artusamak	1
Shaktale-Agirrebeña Jatetxea	6
Autoberezi-Komando Piperrak	6
MRW-Indargorri	2
Eri Sirimiri-Uve Bikoitza	3
Jakina Patxaran Team-Matxakategi	5
Aldoka Maldoka-Moskis	0
Usoa-Patatus	0
Igandekoak-Polideportivo Taberna	2
La Peña DML-Erdibitarrak	6
Txipiron-Etengabe	3
Gazteak-Ganbara Ari Ari	0

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Mongatxurra	43	21
2. A Ze Flaxa Etxagi	42	20
3. Pagomendi	38	21
4. Bar Canalejas	36	20
5. Errotagain	34	20
6. Etxagi	30	21
7. Azpeitxi Jatetxea	29	21
8. Jauja OH Zerezos	27	21
9. Bildurbarek Opel/Lam	24	20
10. Ortz	21	20
11. Agiñaspi	15	20
12. Arloteak/Oilagorra	7	21

Bigarren maila

	P	J
1. Manitou	27	9
2. Shaktale	25	10
3. Artusamak	20	10
4. Guadalest	15	10
5. Bayer	15	10
6. FAC	15	10
7. SLO	12	10
8. Agirrebeña Jatetxea	10	10
9. La Juve	7	10
10. Ezinleike	6	9
11. Ufala	5	10
12. Amozkibar	5	10

Hirugarren maila

	P	J
1. Autoberezi	21	9
2. Uve Bikoitza	18	9
3. Moskis	16	10
4. Bar Ganbara	15	9
5. Jakina Patxaran Team	13	9
6. MRW	13	9
7. Matxakategi	12	9
8. Indargorri	10	9
9. Eri Sirimiri	9	9
10. Komando Piperrak	9	9
11. Aldoka Maldoka	3	9

Laugarren maila

	P
1. Usoa	19
2. Ganbara Ari Ari	18
3. Etengabe	18
4. Txipiron	18
5. Polideportivo Taberna	16
6. Amilotx	12
7. Erdibitarrak	12
8. La Peña DML	10
9. Igandekoak	10
10. Gazteak	3
11. Patatus	-3

ESKOLA KIROLA



Mariaren Lagundia B alebinak

Mariaren Lagundia B alebin taldea Ander Ruiz, Ander Macho, Aitor Gomez de Segura, Eneko Lagoma, Mikel Blazquez, Iban Casquero, Mikel Barquero, Mikel Hernandez, Andoni Nafarrete, Ion Artega, Ander Usaola eta German Rodriguezek osatzen dute. Kirol guztietan aritzeko aukera izan dute eta guztiak gustatzen zaizkiela adierazi digute. Golak sartzea saskiratzea baino zailagoa dela diote. Bestalde, argi laga digute kirola egitea eskolara joatea baino atsegina dela.



Aranzadi 7 alebinak


Aranzadi 7 alebin mailako taldea Eneko Muguruza, Markel Gomez, Unai Elkoro, Julen Hurtado, Jon Santos, Jon Benitez, Aitor Elorza, Xabier Linazisoro, Unai Aldanondo, Beñat Arregi, Iñaki Goenaga, Asier Iparragirre eta Markel Larrañagak osatzen dute. Futbolearen bigarren postua eskuratu dute eta saskibaloian hain ondo ibili ez arren, gustatzen zaiela esan digute. Pilota ere oso gustokoa dute eta guztiak nahiago dute aurrean jokatu. Futbol talde bat aukeratzeko orduan Real, Athletic eta Bartzelonaren alde agertu dira.

IKUSI ETA IKASI

FUTBOLA: Hasierako sarea:

Partiduaren hasieran edota bigarren zatien hasieran, ekipo batek lehenengo kasuan eta besteak bigarrenen, erdiko puntutik egiten duena da. Erdiko sarea hau gola jasotzen duen taldeak ere egingo du jokoari berriz jarraipena ematearren.

KIROLA EUSKARAZ FITXAK



Hiru karateka bergarar Euskadiko txapelketara

Unai Zabarte, Markel Larrañaga eta Oier Tola ekainean jokatuko diren Euskadiko eskolarteko txapelketarako sailkatu dira. Hiru kirolariek postu ezin hobekak lortu zituzten Deba Bailerako txapelketan. Markel Larrañaga lehenengo postuan sailkatu zen, Oier Tola bigarren eta Unai Zabarte laugarren. Euskadiko txapelketan lehenengo postuetan bukatzen badute Estatu mailako eskola kiroleko txapelketara sailkatzeko aukera izango dute. Halere oso zail izango dute bizkai-

tarren maila ona baita karateken entrenatzailea den Josean Inarrak esan digunez. Zabartek gerriko berdea du, Larrañagak eta Tola urdina.



Futbola



BKEko talde nagusiak 2-0 irabazi zion 3. postuan dagoen Zumaiakori. Emaizta horrekin Nietoren mutilek mailaz igotzeko boleto guztiak dituzte. Lehenengo zati nahiko eskasa egin zuten, zumaiarrak atzealdean sartu baitziren. Lehenengo zati bukaeran arbitroak Zumaia-koren jokalaria bat kanporatu zuten eta BKEkoek espazio gehiago izan zuten.

Bigarren zatiaeren hasieran Jokin Mendiaratzek izugarritzko gola sartu zuen. Erdilariak ia zelai erditik jaurti zuen Zumaiakoren atezaina aurreraturik ikusi baitzuen eta baloia gainetik pasatu zion gola sartuz. Beste futbolzelai batean zapiak aterako zizkieten, baina bada-kigu nolakoak garen bergarrok.

Eskubaloia



BKEko talde nagusiak 19-25 irabazi zion Aierruri eta beste partiduetan izandako emaitzen ondoren, Lijoren mutilek atzetik hasita 4. postuan bukatu dute. Postu horrekin ez dute mailaz jeisteko arazorik izango. Halere, goiko mailetan zerbait arraroa gertatzen bada maila galdu dezakete. Hori apiril bukaera aldean jakingo dute. Hil amaieran beste 7 talderekin batera Gipuzkoako kopa jokatzen hasiko dira eta helburua irabaztea da.

Gainontzeko taldeei dagokienez jubencil eta kadete mutilek galdu egin zuten. Kadeteek oraindik lehenengo postuan jarraitzen dute. Kadete neskek, berriz, sekulako egurra eman zieten Andoaingo leitzararen taldekoei.

Saskibaloia



BKE-Bolsos Bergara taldeak 3 punturengatik galdu zuen Azpeitian Iraurgiren kontra jokatutako partiduan. Conderen mutilek partidu txukuna jokatuz, baina arbitraiak emaitza baldintzatu zuen, epaileek erabaki gehienetan azpeitiarren alde egin baitzuten. Asteburu honetan lehenengo itzuliko jokatuko dute eta aurreko postuetan mantentzeko derrigorrezkoa da etxeko partiduetan garaipena lortzea.

Junior mutilek azkenengo postuetan dagoen La Salleren aurka galdu arren lehenengo postuan jarraitzen dute beste talde batekin berdinduta. Kadete neskek eta mutilek galdu egin zuten eta azkenengo postuetan jarraitzen dute.

JON LAZKANO / Mendizalea

"15 kiloko kamara eramango dugu"

Jon Lazkano hil bukaeran Nepalgo Daulaghiri (8172) mendia igotzera joango da TVEko "Al filo de lo imposible" programarako saio bat grabatzeko.

G. Zela igoko duzue Daulaghirira?

E. Daulaghirira bide normaletik igoko gara. "Al filo de lo imposible" programak antolatutako espedizioa da. Bost lagun eta telebistako ekipo bat goaz.

G. Zeinek in zoz?

E. Juanjo San Sebastian, Jose Carlos Tamayo eta Iñurategi anaiekin noa. Gainera telebistako kamara bat eta laguntzaile bat etorriko dira.

G. Mendia igotzeaz gain, helburu nagusia irudi onak hartzea

izango da?

E. Espedizio honetako helburu nagusienetakoa filmaketako kamara handi bat gailurrera eramatea da. Kamara horiek 15 bat kilo pisatzen dute, baina kalitate oneko irudiak hartzen dituzte.

G. Nork eramango du kamara?

E. Filmatzen ez gaudenean pisa banatzeko zatika eramango dugu.

G. Daulaghiri mendi zaila da?

E. Bidea ez da zaila, baina haize gogorra egiten du. Duela gutxi Juanito Oiarzabal han izan da eta haizeagatik ezin izan zuen igo. Mendiak ertz bat dauka eta inguruan mendirik ez daukanez haizeak gogor jotzen du.

G. Orain arte eskaladan aritu zara gehinbat. Zergatik animatu

zara Daulaghirira joaten?

E. Mendia bera polita da, baina erakargarriena sortu dugun taldea da. Guztiok betidanik lagunak izan gara eta horregatik erabaki dut joatea.

G. Beste proiekturik ba al duzu?

E. Udaberrian talde bera Tibetera joango gara beste mendi bat igotzera.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Añorga

Infantilak

Osteguna. 11:00. Ipintza.

Bergara-Almen

Lehen maila kadeteak.

Zapatua. 11:30. Ipintza.

ESKUBALOIA

Bergara-Almen Txiki

Kadete mutilak.

Eguena. 11:00. Labegarieta.

Bergara-Beasain

Jubencil mutilak.

Eguena. 12:15. Ipintza.

SASKIBALOIA

Bolsos Bergara-Antonio Erra

Senior mutilak.

Zapatua. 19:00. Labegarieta.

Bergara-Intxaurren

Kadete mutilak.

Zapatua. 12:15. M Lagundia

WATERPOLOA

Bergara-Menditxo

Zapatua. 20:00. Legazpiko

igerilekuan

PILOTA

Tolosa III eta Oliden

Errandonea II eta Taberna.

Ariznabarreta eta Armendaritz

Berasaluze VIII eta Zezeaga.

Eguena. 17:00. Udal pilotalekua.

Urionaguena-Zearra.

Koka-Agirre.

Alustiza eta Arretxe

Etxaniz eta Zezeaga.

Zapatua. 17:00. Udal pilotalekua.

Igotzaile onenak Gorlan izango dira

Unamuno, Iturbe eta Igarza bergararrek parte hartuko dute

Gorlako igoeraren 24. edizioa jokatu da bihar goizeko 11,30etatik aurrera. Lehenik eta behin beteranoak irtingo dira eta horien artean Felix Igarza eta Ricardo Iturbe arituko dira. Ondoren, afizionatuak irtingo dira eta horien artean Arrasteko Born Jay taldean ari den Jon Unamuno bergararra eta Oskar Askasibar elgetarra izango dira. Unamunok orain arte hiru lasterketan parte hartu du eta lehenengoa aurreko taldean bukatu zuen bitartean, beste biak ezin izan zituen bukatu. Batean erorketa bategatik eta bestean aberia mekaniko bategatik. Biharko proban lan ona egitea espero du Unamunok: "nahiko



Argazkian Carlos Sastre joan zen urteko irabazlea.

ondo nago. Lehenengo lasterketan ondo aurkitu nintzen. Topera ez nago, maiztzean izango den Bidasoako itzulia prestatzen ari naiz eta. Halere joan zen urtean baino hobeto geratzea es-

pero dut". Carlos Sastre, joan zen urtean lasterketa irabazi zuen eta 20 minutu eta 59 segunduko denborarekin errekorra duen txirrindularia, ez da irteeran izango profesionaletera igo baitu.

Faboritoen artean Baque taldeko Astarloa bizkaitarra aipatu behar dugu.

Beste urte batez antolakuntza lanen ardura Bergara txirrindulari elkarteak eta Lokatzak daramate. Azpimarratzekoa da Gurutz Arrieta eta Xabier Ilzarbek proba hasi zenetik dihardutela lanean. Datorren urtean probak 25 urte beteko ditu eta hori ospatzeko ekitaldi bereziren bat antolatzeko asmoa dute. Halere, Bergarako zikloturisten aldetik laguntza gehiago eskatzen dute proba antolatzeko. Gorlara kotxez igo nahi dutenak goizeko 11:00ak baino lehen irten beharko dira, ordu horretan bidea itxi egingo baita. B

Aerobiton ikusgarria Labegaraietan



Giartzu eta Bolu gimnasioek antolatutako aerobitonean 120 lagunek hartu zuten parte. Iaz baino jende gutxiago izan zen eta antolatzailerak ez daude gustora kirol proba nola joan zen ikusita. Izan ere, Labegaraieta kiroldegiko megafoniarekin arazoak izan zituzten eta monitoreek ezin izan zuten mikrofonotik berba egin musika jarrita ze-

goen bitartean. Probak bi ordu eta erdi iraun zituen eta antolatzailerak parte hartzaileek izandako pazientzia eskertu nahi dute.

Datorren urrirako step proba herrikoia antolatzeko asmoa azaldu dute. Dena dela, aurtengo aerobitona nola joan den ikusita datorren urtekoa kolokan dago antolatzailerak diotenaren arabera. B

Mugertza harategia

GORA MAHONEROAK!

Mugertza harategiak, astero, 2 txuleta ematen dizkio BKEko futbol talde nagusiko golegile nagusiari



Mugertza 12, Bergara. Tf. 76 13 82.



Amillaga, gasolindegia ondoan. Tf.: 76 57 34

ZABALETA

ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskapareak...

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisu amueblatua salgai herri erdian. 76 06 64.

Pisua salgai A. Fleming kalean. 76 56 99.

Barrenkalean apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

Donostiako Alde Zaharrea pisua salgai. 43 19 22.

Errentan hartzeko

Pisua alokairuan hartu edo konpartituko nuke. 76 40 33 (Ramon).

Pisua hartuko nuke alokairuan. Deitu 76 41 16 telefonora.

Baserri baten bila gabilta bertan bizitzeko. 907 48 07 52.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Bolun. 76 47 99.

Garajea salgai Masterrekan. 78 36 65 (20:00-22:00).

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

Garajea salgai Aranerrekan (2 plaza itxita). 76 06 96.

Garajea salgai Martokon. Deitu 76 35 50 telefonora.

Garajea salgai Burdiñaten. 38 m2. Deitu 76 19 54 telefonora.

Kotxe txiki baterako garajea salgai Ibargarai kalean. 650.000 pezeta. 76 57 93.

Garajea salgai Torreku. 950.000 pezeta. 76 19 72.

Errentan emateko

Garaje bikoitza alokairuan Torrekoan. Deitu 7633032 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarai 37an. Deitu 763376 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarain. Deitu 76 16 38 telefonora.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. Deitu 7650 00 telefonora.

Garajea alokatuko nuke. 7605 17.

Burdiñate inguruan garajea errentan hartuko nuke. 76 70 63.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m². 76 1189.

Lokala salgai A. Fleming. Deitu 76 00 84/76 35 83 telefonoetara.

Lokal komertziala salgai Martokoan. 76 25 67.

Erosi

Zona industrialean 70 m² inguruko lokala erosiko nuke. 76 29 95.

Errentan emateko

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m². 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osorik edo gelaka). 76 58 91.

Uberan 144 m²ko lokala alokairuan. Biltegi edo lantegi txiki baterako egokia. 79 05 63.

San Lorentzoko industrialdean 200 m²ko lokala alokairuan. 76 35 09.

Errentan hartzeko

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko nuke. Osintxun. 76 08 21.

4. LANA

Eskaintzak

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako egingo litzuzke. 76 00 90.

Neska batek astebuko eretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo litzuzke. 76 56 66.

Klinika auxiliar batek gaisoak edo helduak zaintzen ditu. Deitu 76 64 47 telefonora.

47 urteko emakume batek astebukaera eta jaiegunitan zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo litzuzke. Deitu 76 50 46 telefonora.

Neska batek orduka...



Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31 Tf. 76 20 02 BERGARA


Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
☎ 76 21 80-76 06 37



ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekuruzeta 16 BERGARA Tf. 76 23 94 - 76 12 65

Deco-Textil
ZANGITU

Etxerako lenteria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 76 08 69



Biko
BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerrean
Tf. 76 71 19

egingo luke. Deitu
939 472584 telefonora.

Neska batek zaharrak
zaindu (gauze ere bai)
eta garbiketara lanak
egingo lituzke (orduka).
76 58 10 (Maria Jesus).

Eskaerak

Antzuolan, bi gaiso
edadetu zaindu eta
etxeko lanak egiteko
pertsona behar da
(egun osoz). 76 61 85.

Neska behar da umeak
zaindu eta etxeko lanak
egiteko. 76 48 76.

Bi mutiko zaindu eta
etxeko lanak egiteko
pertsona bat behar da
Antzuolan. 78 70 50
(18:00-20:00).

5. IRAKASKUNTZA

Eskaerak

Ingeles klaseak ematen
ditut. 76 17 18 (Jesus).

OHO klaseak Antzuolan.
78 71 32.

Ingeles klaseak ematen
ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika
klaseak ematen ditut
LOGSE 2 arte. 76 24 31.

Mate klaseak ematen
ditut. 76 03 72 (Nerea).

Lizentziatu batek mate,
fisika eta kimika klase-
ak ematen ditu. 76 70 40.

Fisika, informatika eta
mate klaseak. 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak
ematen dira. 76 33 26.

Pintura eta marrazki
klaseak ematen dira.
76 03 83.

Majisteritza ikasle batek
LH eta DBHko klaseak
ematen ditu.
76 11 81 (Ainara).

Eskaerak

Enpresaritza zientzieta-
ko irakaslea behar da
matematika eta mate-
matika finantzieroa
irakasteko. 76 38 28.

Errepartoa egiteko fur-
goneta duen mutila be-
har da. 76 10 71.

Neska behar da bi e-
dadetu zaindu eta etxeko
lanak egiteko. 76 47 99.

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Aprilia rally motorra (49

c.c.) salgai. 76 62 24.

Audi 90 kotxea salgai.
1988koa. 76 35 09.

Ford Escort kotxea egoe-
ra onean salgai. ZA-F.
76 09 85.

Renault-21 GTS kotxea
salgai. Oso egoera
onean, lau urte t' erdi,
68.000 Km. 76 30 12.

7. ANIMALIAK

Saldu/Eman

Lau txakurkuma oparitzen
ditut. 76 55 52.

Setter ingeles arrazako
lau txakurkume salgai.
Abenduaren 19an jaio-
ak. 76 51 38 (Joseba).

8. DENETARIK

Saldu

Logela berria salgai: bi
ohe, ikasketa mahaia,
liburu apalak, altzari
txikiak. 76 43 37.

Karro-denda salgai.
76 59 56 (gauzez).

Denda baterako modu-
ko apala, mostradorea,
euskarrria eta makina-
erregistradora prezio

onean salgai. Deitu
76 25 67 telefonora.

Bigarren eskuko telefo-
no inalanbrikoa erosiko
nuke. 76 09 99 (gauzez).

Gazteentzako altzariak
saltzen ditut. 20.000
pezeta. 76 30 93.

Altzariak prezio onean
salgai. 76 30 93.

Ziklismoko zapatak
salgai. 76 01 31.

Belaunetarainoko
katiuskak saltzen ditut.
76 53 16.

Soinua saltzen dut.
Oso egoera onean.
76 56 65.

Logela klasikoa salgai.
19 10 95 (Manoli).

Talde italiar bateko
txirrindulari ekipoa eta
Ronaldo izenarekin
futbol kamiseta saltzen
ditut. Deitu 76 47 82
telefonora.

Katu siamesak salgai.
Hilabete t' erdi.
76 17 35.

Galdu

Diru kantitate dexente
galdu dut. Topatuz gero,
deitu. 76 07 92. Saritu-
ko da.



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta
egukizetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefona: 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

INTERNET IRAKASLEA

- Bilbon kokatutako enpresa baterako.
Baldintzak
- Web orrien diseinua, CGI aplikazioak eta zerbi-
tzarien administrazioa ezagutzea.
- Ikastaroaren hasiera: 1998ko martxoaren 25a.
- Erref. 6922/1

OHOko IRAKASLEA

- Ermuak kokatutako akademia baterako.
Baldintzak
- Lehen Hezkuntzako Irakasle diplomatua.
- Euskara maila altua.
- Ingles maila erdikoak.
- Astean 18 ordu, gutxi gorabehera.
- Erref. 6892/4

KAMAREROA

- Bilbon kokatutako hotel baterako.
Baldintzak
- Ikasketak: FPII, ostalaritzako espezialitatea.
- Frantses maila altua.
- Ostalaritzako lanetan esperientzia izatea.
- Erref. 6713/2

ALUMINIOAN LAN EGITEN DUEN AROTZA

- Deba Behean kokatutako enpresa baterako.
Baldintzak
- Bizitokia: Deba behea edo inguruko eskualdeak.
- Ezinbestekoa: gutxienez urtebeteko esperientzia
izatea atea, leihoak, etab. eraikitzen.
- Soldaduska edo ordeko zerbitzutik libre.
- Hasierako kontratua, 6 hilabetekoa.
- Erref. 6446/2

BEREZITASUNAK:
BIZKOTXOAK
ERRELENOAK
TOSTOIAK

MUJIKAZOZOTEGIA

Artekale, 3 BERGARA
☎ 76 10 34

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegarietan.
Tf. 76 27 93

Bergarako Udala

IRAGARKIA

Bergarako Udalak Euskara departamenturako
teknikari bat behin-behingo kontratatzeko
lehiaketa-oposizioa egingo du.

Instantziak aurkezteko epea:
Apirilaren 7ko eguerdiko 13:30ak baino lehenago.
Oinarriak eta informazioa:
Idazkaritzan eta Euskara departamentuan,
hurrenez hurren.

Bergaran, 1998ko martxoaren 12an.
ALKATEAK.

ileapaindegia
eder gela

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 76 00 55

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8 Tf. 76 31 02

Lehen Abdon Juaristi Pintura Lehiaketa

Zezenzaleak taldeak antolatu du Pazkuetako zekorketako kartela iragartzeko

Zezenzaleak elkarteak, Beart Arte Elkartearen eta Udalaren laguntzaz, Lehen Abdon Juaristi pintura lehiaketa antolatu du. Lehiaketako irabazlearen irudia, Pazkuetan antolatu den zekorketa iragartzeko erabiliko dute antolatzaileek.

Abdon Juaristi pintore bergararra zenak, Zezenzaleak taldeak antolatzen duen zekorketako karteleko irudia egin zuen aurreko lau edizioetan. 1994. urtean, lehen edizioan, zezen taldea plazara sartzen eta atzealdean San Pedro parrokia eta herriko etxeak ikus zitezkeen; bigarren edizioan, zezen bat kapoteari adarkadak ematen marraztu zuen eta hirugarrenean, 1996. urtean, Infernokutik marraztuta, Santa Marina parrokia eta zubia, eta zezen taldea Deba errekatik behera. Iazko ediziorako kartela prestatzen hasia zen, baina bozetoa eginda zuenean hil zen. Domeka honetan urtea beteko da minbiziak jota hil zela. Abdonek eginda zeukan bozetoa erabili zuten iazko zekorketa iragartzeko; bertan, torero bat zezena txuliatzen agertzen zen. Bestalde, Zezenzaleak taldeak bozetoa taldearen ikur edo logotipo bezala erabiltzeko aukeratu zuen Abdon Juaristiren omenez.

Zezenak eta Bergara

Aurrerantzean, Zezenzaleak taldekoek Pazkuetako zekorketa iragartzeko kartel lehiaketa deituko dute eta honek pintore ospetsuaren izena hartuko du. Lehiaketako oinarriak kaleratu dituzte dagoeneko eta bertan nahi duen edozeinek parte hartu ahal izango du eta ez da inolako adin edo nazionalitate



Abdon Juaristi, 1994ko edizioko kartela iragartzeko egindako koadroarekin.

mugarik izango; gehienez 3 lan aurkeztu ahal izango ditu bakoitzak. Kartelaren gaia "Zezenak eta Bergara" izango da; estiloa eta teknika librea izango dira eta markorik gabe, euskarri gogorrean edo bastidorearekin aurkeztuko dira. Neurria: 55x46 cm gutxienez eta 146x114 cm gehienez. Lanak apirilaren 20tik 30era bitartean, arratsaldez, aurkeztu beharko dira Kultur Etxean eta, bertan, egilearen datuak jarri beharko dira (izena, helbidea, telefonoa, NANaren fotokopia, obraren izenburua eta erabiltzen den teknika).

Sari bakarra emango da: 150.000 pezeta eta plaka eta maiatzaren 9an emango da jakitera irabazlea. Antolakuntza saritutako lanaren jabe egingo da eta, beraz, erreproduzio eta zabal-

penerako eskubide guztiak izango dira. Lehiaketari buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, Kultur Etxean jakun daiteke.

Epaia mahaia nortzuk osatuko dute oraindik zehazteke dago, baina antolatzaileek parte hartzen duten Zezenzaleak eta Beart taldeetako kideek osatuko dute seguruen.

Eskualdeko Lehen Arte Topaketa

Bestalde, Beart arte elkarteak eta Arrasate Margo Taldeak Eskualdeko Lehen Arte Topaketa antolatu dute Abdon Juaristiren omenez. Martxoaren 23tik apirilaren 5era arte, pintura, eskultura eta zeramika lanak izango dira ikusgai Kultur Etxean. B

Gallastegi

Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

Bolintxo
OKINDEGIA

domeketan zabalik
eta zapatu

arratsaldeetan 17:00etatik
20:30etara

Zurradero 2 behea Telefonoa 76 01 26



KORTA-ZAR
Txokolategia

Pintxo eta ogibarteko en
espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenkalea 16 ☎ 76 20 62

Bergarako Orfeoia Miramoneko eguerdietan

Orfeoia eta Opus III Perkutsio taldea Euskadiko Orkestaren egoitzan

Joan zen zapatuan Bergarako Orfeoia eta Opus III Perkutsio Taldeak kontzertu bikaina eskaini zuten Donostiako Miramonen, Euskadiko Orkestaren egoitzan. Aukeratutako programa, entzuteko erreza zen eta bi taldeak ederki aritu ziren lanean.

Iñigo Alberdi

Perkutsiozko instrumentuez soilik osatutako talde bat entzuteko aukera gutxi izaten dira eta, horregatik, talde hauen musika eta tinbreak ezezagunak dira entzule gehienontzat. Zapatuan kontzertua Opus IIIko instrumentistek hasi zuten eta, gainera, musika-lan baten estreñoarekin: Tomas Aragues-en "Sinfonietta". Euskal konpositore honek bertan adierazi zizkigun bere obra honen nondik-norakoak Miramonen bildu gineno, era ulergarri eta erakargarri batean. Hiru zati dituen Sinfonika txiki baten erara paratu du obra hau; hiruzatiak oso desberdinak dira beraien artean, honekin, perkutsio talde batek aukera guztiak erabiltzea nahi izan du, eta lortu ere lortu du. Opus III Percusion Esembleko kideak, aldi berean, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko perkusionistak dira, profesionalak, eta zapatuan maila hori erakutsi zuten. Zuzendari lanetan (kontzertu guztian) Jesus J. Soldevilla aritu zen

eta musikalidade haundiz gidatu zuen bere taldea eta Orfeoia. Honi asko eskatu zion eta Orfeoia asko eman zuen.

Lehenengo obraren ondoren, Orfeoia sarrera egin zuen. Abestutako lehenengo obra, Leonard Bernstein-en aski ezaguna den *West Side Story*. Niretzat kontzertuko zatirik onena izan zen, Orfeoia benetan ondo abestu zituen konposizio honen bost zatiak, hain desberdinak baina hain onak. Bernstein-en musika hau aproposa da perkutsiozko taldearekin joteko. Lehenengo zatian, *Tonight* famatuan, koruak soinu berezia lortu zuen, aberatsa.

Amerikara egindako bidai musikal honen ondoren, zarzuelen tarte heldu

zen. Zarzuelen ezaugarri nagusia melodien nagusitasuna da eta baita ere erritmo sinpleen erabilera. Abesteko ez dauka polifoniaren zailtasunik, normalean, ahots bakarrean abesten baitu koruak; baina, bestalde, testu ugari edukitzen dute eta unisono izaki, afinazioa ere errez galdu daiteke. Musika eszenikoa denez, nolabait papera "interpretatu" behar da. Zapatuan Miramon, txulapo, barkilo saltzaile eta milorden bilgune bihurtu zen. La Gran Via zarzuelako Schottisch ezagunean Maria Jesus Ugaldek bakarlarri lanak egin zituen, ederto.

Bukaeran, bi bis eskaini zituzten. Entzuleak (Orkestako abonatuak) oso gustora irten ziren. Musikaz gozatzeko aukera izan genuen. Zorionak! B



Bergarako Orfeoia Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitzan kantatzeko aukera izan zuen zapatuan. VALEN MOÑUX

UDABERRI-UDA
denboraldiaren hasiera

Janden

Eta orain
52ra arte!
taila
haundiak

Gazte eta emakumeendako jantzi eta osagarriak
Irizar 1, BERGARA. Tf. 76 20 03

KONDE



Burdinate 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Galdeketak. 2. Jarraitzearen ondorioa. 3. Igarobidea. Egile atzikia. Bostehun eta bat. 4. Tik-..., erlojuaren hotsa. Era, modua, itxura. 5. Haragia. Frantziako hegazkinetan. 6. Landare-mota. Oxigenoa. Bokala. 7. Jarría. Idi, hitz elkar-ketan. 8. Jainko egiptoarra. Gure hizkuntza. 9. Biloa. Behor berotuak. 10. Euskaraz eta kitto! Fetua eta umetokia lotzeko.

Goitik behera

1. Ekintza gaitzesgarria. 2. Rabako-erretzaile. 3. Jarduera. Nork, pluralean. 4. Oinarrizko edaria. Landare-mota. 5. So-dioa. Musulman. Potasioa. 6. Pisu-neurri. Olgetarako denbo-ra. 7. Ez hotza, ez beroa. Ahuntzaren ar. 8. Infusio mota. Hari, du. Bihi. 9. Gizon izena. Asiako estatua. 10 Portua. Mendiko atea.

Soluzioa

Ezker eskuma
 10. AEK, Karna
 9. Ilea, lelak
 Estarria, Ir. 8. Ra, Euskara
 Okeia, Atr. 6. Koria, O. A.
 Dira, Le. DI. 4. Tak, Moidea
 Nauketak. 2. Jarrapena
 10. AEK, Karna
 9. Ilea, lelak
 Estarria, Ir. 8. Ra, Euskara
 Okeia, Atr. 6. Koria, O. A.
 Dira, Le. DI. 4. Tak, Moidea
 Nauketak. 2. Jarrapena
 Goitik behera
 10. AEK, Karna
 9. Ilea, lelak
 Estarria, Ir. 8. Ra, Euskara
 Okeia, Atr. 6. Koria, O. A.
 Dira, Le. DI. 4. Tak, Moidea
 Nauketak. 2. Jarrapena

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberebizar

Zein da ermita honen izena?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Agirrebeña** jatetxea izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Izaskun Agirregabiria**rentzat izan da: Eguzkitza erretegia bi lagunendako afaria. Zorion! Izaskuni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Burdiñate plaza eta San Martzial**. Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-C**.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**



Ibarra kalea 2, BERGARA
 Telefonoa: 76 20 38

C.D. Bergara, Pol-Pol edo Bergara Txirrindulari Elkartean ibilitakoa da. Azken honetan presidentea dugu 1961. urtetik eta aurten Gorlako igoseraren 24. edizioa antolatzen dihardu. Miguel Altuna Institutuko atezain postuan jubilatuta berri da.

Zela hasi zineten Gorlako igoserarekin?

Bergararik Elosura karrera polita egin zitekeela iruditu zitzaigun.

Gogoan duzun edizioa?

Lehena; bildurrez ginen, giro txarra egin zuen baina jende asko izan zen.

Irabazlerik inportanteena, zein?

Asko izan dira baina Alberto Fernandez beharbada.

Eta garaipenik gabe geratu direnatarik?

Manceborenak pena eman zidan, gurasoak Bergaran bizitakoak dira eta.

Zer behar da Gorlan irabazteko?

Oso ondo gertatuta egotea.

Tramorik zailena, zein?

Boluko hasierako aldapa. Amestitik gorakoa ere txarra da.

Zuk zeuk zenbat denboran igotzen duzu Gorlara?

Ez naiz erlojuari begira egoten...

Ailegatzen banaiz, ondo.

Bizikletan, paisaiarekin disfrutatzen da?

Poliki goazenok bai behintzat...

Astero zenbat kilometro?

Jaietan irtetzen naiz, 50 bat inguru.

Zein buelta egitea gustatzen zaizu?

Landa aldera, Ondarroara...

Etxean rodillorik badaukazu?

Bai, baina ez dut erabiltzen.

Zelako bizikleta daukazu?

Gurutz Arrieta

Razesa bat, Ritter modeloa.

Eskalatzailera ala errodadorea?

Goitik behera ondoen... Lauan nahiago.

Pajara batetik zela errekeratu?

Deskantsatuaz eta janez.

Zein izan da zure idoloa?

Loroño eta C.D. Bergaran korritu zuen Velez arabarra.

Bergarak eman duen ziklistarik onena?

Aranzabal.

Merckx ala Indurain?

Diferenteak izan dira; Merckxek klasika guztiak ere irabazten zituen.

Ziklismoaz aparte, kirol bat?

Futbola eta pilota.

Aspe ala Asegarce?

Aspe.

Agorrosinera joaten zara?

Ez, ez daukat ohiturarik.

Mendizalea zara?

Gorla Alpinoko bazkide izan arren, gutxitan joaten naiz.

Telebista ala irratia?

Telebista.

Programa bat?


Telediarriak, filmeren bat...

Gustora jubilazioarekin?

Ea nola moldatzen naizen...



ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea


bazkari eta
afariak

Telefona: 76 21 21
ANGIOZAR

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



**EDEL
TAPIZDENDA**

*Etxerako artikuluetan
aukerarik haundiena
eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoia, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



Kontearen diligentzia, 1971

Errotalde Jauregiko konteen diligentzia Bergaratik Elorriora eraman zuteneko argazkia ekarri dugu aste honetan Erretratu Zaharrera. Argazkia 1971. urtekoa da eta Marcial Morenok laga digu. Mikel Murgizuk eman digun informazioaren arabera, diligentzia Pariseko Mühlbacher enpresari erosi zion Ignacio Murua Balzola konteak, 1894ko ekainean, orduko 8.849 liberaren truke.

Diligentzia Parisetik trenez ekarri zuten Hendaiaraino eta handik Bergarara karroan etorri ziren, lau zaldik tiratuta, Donostiatik pasatuz. Donostiako kale estuetatik barrena igaro behar izan zuten eta ez zuten lan erreza izan diligentzia haundi samarra zelako.

1971. urtean Bergaratik Elorriora eraman zuten, argazkian ikus dezakezuen kamioian eraman aurretik argazkia atera zuten Santa Ana ko ate nagusian. Bertan agertzen diren guztiak izenak ez dakigu, baina Alejandro Lopez de Sábida, Floren Labaien eta Marcial Moreno identifikatu ditugu.

Argazkia: Marcial Moreno

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!



Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Industria **U** Industriaren
hornikuntzak **UNIFE** alde

MEMESA S.L.


Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE
Tf. 79 42 22 • F. 79 47 89
Santa Kruz 25 ARETXABAETA
Tf. 77 11 75 • F. 77 13 08

Gidari onenek

OHOREZKO-MATRIKULA

merezi dute

Aldatu zaitez MAPFREera

Azkartu  itzazu zure bonifikazioak

Orain zure automobilaren aseguruia aldatzea **ez zaizu ezer kostako.**

Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria). Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean.**

 **MAPFRE**

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, BERGARA. Tf. 76 18 80.

Aralar Taberna

ZATOZTE INAUGURAZIORA

Gaur, martxoak 18, eguaztena, 19:00etatik 21:00etara.

Matxiategi 3, behea. BERGARA


Hello friends!

This is Michael Morris, an English teacher.

Badakizue munduan ibiltzeko ezinbestekoa dela ingelesa.

Horregatik egin dut hiztegi hau, Euskal Herria eta mundua lotzeko ezinbesteko tresna.

Connecting Basques and the world.



**Euskara-Ingeles
Ingelesa-Euskara
Hiztegia:**

1.200 orri

**80.000 hitz
eta adierazpenak**

**Eranskina
gramatikal zabala**

**Irudiak, mapak
eta bestelako
ikasmaterialak**

**Ingalaterrako
nahiz EEBBetako
ingeles
ahoskatzeko gidak**

**1. alearekin
tapak doan**

**Otsailaren 28tik aurrera,
asteazken eta larunbatetan 225 pzta. + Egunkaria**

Le
2057